



Adoptatutako ikasleei eskola inklusiboan eman beharreko hezkuntza-erantzuna



Adoptatutako ikasleei eskola inklusiboan eman beharreko hezkuntza-erantzuna



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke <http://bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Koordinatzailea:

Carmen Albes Carmona

Kolaboratzaileak:

Alberto Rodríguez González

Isabel Galende Llamas

Javier Múgica Flores

Lorea Aretxaga Bedialauneta

Eskerrak eman nahi dizkiegu pertsona hauei:

Ana Francia Iturregi

Arantza Beaskoetxea Burgos

Bárbara Torres Gómez de Cádiz

Esther Pacheco Cruz

Eva Uriarte Galarza

Fco. Javier Monzón González

Fernando Muga Villate

Jesús M^a de la Mota Juariz

José Luis Alberdi Goenaga

José Luis Gonzalo Marrodán

José Santos Bañares

Juan Antonio Tejero Maeso

Maite Sáenz Izurategui

María del Mar Pérez Gómez

María del Mar Pinto de Perosanz

Nere Inda Goikolea

Rosa Barrio Peral

Rosa Ortega Ezeiza

Umealaia Elkartea

Azala eta ilustrazioak:

Carmen Cobo Musatadi

Maketazioa:

Leming Diseño

Argitaraldia:

I.a, 2017ko apirila

Ale-kopurua:

1.500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Hezkuntza Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia


Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gazteiz

Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| 1. SARRERA | 7 |
| 2. ADOPTATUTAKO IKASLEAK ETA HAIEN FAMILIAK | 9 |
| 2.1. Egoera-aniztasuna | 12 |
| 2.2. Izan daitezkeen zailtasunak | 14 |
| 2.3. Kontuan hartu behar diren ahalmenak eta indarrak..... | 17 |
| 2.4. Adopziozko familien ezaugarriak eta beharrak..... | 18 |
| 3. ADOPTATUTAKO IKASLEEI ESKOLA INKLUSIBOAN EMAN BEHARREKO HEZKUNTZA-ERANTZUNA | 19 |
| 3.1. Eskola inklusiboaren ezaugarriak eta printzipioak..... | 20 |
| 3.2. Hezkuntza-sistemak gainditu behar dituen oztopo posibleak..... | 21 |
| 3.2.1. Ikastetxean landu behar diren oztopoak..... | 21 |
| 3.2.2. Ikasgelan landu behar diren oztopoak..... | 22 |
| 3.3. Irakasleentzako orientabide orokorrak..... | 24 |
| 3.3.1. Emozioen segurtasuna eta erregulazioa..... | 24 |
| 3.3.2. Adopzio-kondizioa..... | 28 |
| 3.3.3. Ikasgelako diskriminazio-egoerei heltzea..... | 30 |
| 3.3.4. Tratu onak, harremanak eta trebetasun sozialak..... | 34 |
| 3.4. Ikaskuntzako premia espezifikoei erantzutea..... | 36 |
| 3.4.1. Sarrera | 36 |
| 3.4.2. Hezkuntza-premiak..... | 36 |
| 3.4.3. Neurri orokorrak..... | 37 |
| 3.4.4. Neurri espezifikoak | 38 |
| 3.4.5. Jardun-protokoloa, premiak detektatzen direnetik esku hartu arte..... | 41 |
| 3.4.6. Familiaren rola prozesuak irauten duen bitartean..... | 44 |
| 3.5. Ohiko ikasgelan ematen den hezkuntza-erantzuna..... | 44 |
| 3.5.1. Ikasgelan egiten diren jarduerak eta zereginak..... | 46 |
| 3.5.2. Nola hitz egin behar da adopzioari buruz modu inklusiboan ikasgelan?..... | 47 |
| 3.6. Hezkuntza-erantzuna eskola-testuinguruan..... | 49 |
| 3.6.1. Ikastetxeko planak eta proiektuak..... | 50 |
| 3.6.1.1. Tutoretza..... | 51 |
| 3.6.1.2. Harrera-plana..... | 52 |
| 3.6.1.3. Ekintza Plan Pertsonalizatuak..... | 53 |
| 4. FAMILIA | 55 |
| 4.1. Elkarren arteko lankidetzeta: oinarrizko premia..... | 56 |
| 4.2. Familiaren inplikazioa..... | 57 |
| 4.3. Nola bultza daitezke familiekiko lan-harremanak? | 58 |
| 5. DEKALOGOA. ESKOLA ETA ADOPZIOA | 61 |
| 6. BALIABIDEAK | 65 |
| 7. BIBLIOGRAFIA | 69 |
| 8. ERANSKINAK | 73 |

SARRERA



1 . SARRERA

Adopzioa, nazionala eta nazioartekoa, familia osatzeko beste modu bat gehiago gisa hartuta, errealitate sozial bat da. Adopzioa haurrak babesteko neurri bat da, esparru normalizatu baten barruan. Hainbat zirkunstantzia direla medio familiarik ez duten edo familiarekin bizi ezin diren adingabeei familian bizitzeko era bat eskaintzeko modurik hoberena da.

Hezkuntza-sistemari dagokio, esparru inklusibo baten barruan, ikasle horiei erantzun egokia eskaintzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea.

Inklusibitatea autonomia-erkidego honetako Hezkuntza Sailaren lehenetsutako ildoetako bat da. Inklusioa eskubide-kontu bat da, eta, horregatik, sistemak bermatu behar du eskumen guztiak ahalik eta gehien garatuko direla ikasle guztiengan.

Haur guztiak desberdinak eta bakarrak dira, aniztasuna da ikasle guztiengan gehien nabarmentzen den ezaugarria, eta, horregatik, adoptatutako adingabeen heterogeneotasunak behartzen gaitu ikasle horiek ez etiketatzeraz edo estigmatizatzeraz.

Proposatzen da ikastetxeetan sortzen diren egoerak Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsaletik abiatuta lantzea, erabiltzen diren hezkuntza-estrategiek ikasleen aniztasun guztia hartzeko.

Illo horretan, detektatutako eta familiekin eta irakasleekin partekatutako premiari erantzunez, dokumentu-gida hau egin da, hainbat hezkuntza-eragilerekin eta gaia ezagutzen duten profesionalekin elkarlanean jardunda.

Dokumentu honen bitartez honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Adingabe horiek dituzten zirkunstantziak eta premiak ulertzea ahalbidetzen duten gakoak ematea.
- Irakasle taldea kontzientziaztea eta sentsibilizatzea adoptatutako ikasleak aintzat hartzeko premiari buruz.
- Hezkuntza-komunitateari tresna bat ematea ikasle horiek eduki ditzaketen premia orokorretara nahiz espezifikorretara egokitzeko hezkuntza-jardunbideak sustatzeko, eta, era horretan, arrakasta lortzea adoptatutako ikasle horien eskola-bizitza osoan.
- Eskola-komunitatearen artean sinergiak sortzea elkarlanean arituz; lan horretan, familiak eta profesionalak indarrak eta jardunak elkartuko dituzte adingabe horien eskola-arrakasta sustatzeko.

Dokumentuak bi zati ditu. Lehenengo zatian, alderdi kontzeptualagoak edo teorikoagoak deskribatzen dira eta irakasleentzako orientabide jakin

batzuk ematen dira. Bigarren zatian, hainbat eranskin biltzen dira, hala nola bibliografia, baliabideak, estrategiak, adibideak, eta abar.

Lehenengo blokeko lehenengo bi kapituluetan, adoptatutako ikasleen eta haien familien ezaugarriak ulertzeko hurbilpen bat egiten da.

Hirugarren kapituluan, adoptatutako ikasleei eskola inklusiboan ematen zaien hezkuntza-erantzunari buruzko alderdiak lantzen dira: eskola inklusibo baten oinarriak, ikasgela ikaskuntzari erantzun globala emateko gune gisa, irakasleentzako orientabideak eta ikasle horiek eduki ditzaketen premia espezifikoak ematen zaien erantzuna.

Familia ezinbesteko eragile gisa hartzen da eta eskolaren eta familiaren arteko elkarlana azaltzen da laugarren kapituluan.


Amaitzeko, hezkuntza-erantzun egokia emateko jarraibideak biltzen dituen dekalogo bat eskaintzen da bosgarren kapituluan.

Dokumentuaren bigarren blokea honako hauek osatzen dute: bibliografia, intereseko webguneak eta eranskinak. Eranskinetan, harrera-plan bat abian jartzeko jarraibide orokorrak eta, batez ere, tutoretzari buruzko hezkuntza-estrategiak biltzen dira.

Dokumentu honek ikasle guztien egoeretara irekita dagoen eskola inklusibo baten aldeko apustua egiten du; diskriminatzen ez duen, bereizten ez duen eta giza aniztasuna aberasten gaituen balioztat hartzen duen eskola baten aldeko apustua, alegia.

Maite Alonso Arana
Hezkuntza Sailburuordea

ADOPTATUTAKO IKASLEAK ETA HAIEN FAMILIAK



2. ADOPTATUTAKO IKASLEAK ETA HAIEN FAMILIAK

Euskal Autonomia Erkidegoan, azken 20 urteetan, 5.000 haur inguru adoptatu dira¹. Adoptatutako pertsonen eta haien familien profilaren eta premien ezaugarriak haien aldakortasuna eta tipologia homogeneousorik ez izatea dira. Nahiz eta ezin den alde batera utzi adopzio ororen atzean aurretik izandako zoritxar-egoera bat dagoela, ezinbestekoa da adopzioa eta psikopatologia arintasunez lotzen dituzten eta ikasle horiei nahasmendu psikologikoak leporatzen dizkieten muturreko jarrera estigmatizatzaileak saihestea.

Horregatik, garrantzitsua da Palaciosen hitzak nabarmentzea²: *Adopzioaren ondoren, neska-mutil gehienek lortzen dute iritsi zirenean zituzten arazoetatik oso ondo indarberritzea. Adoptatuak ez dira arazo multzo bat, eta ez da egokia haiei buruz orokorrean esatea nahasmendu intelektualen edo emozionalen eraginpean daudela. Aldatzeko indar handia dutenez, gurasoen dedikazioa dagoenez, profesionalen laguntza dagoenez eta erakundeen babesa dagoenez, adoptatu gehienak aurrera ateratzen dira modu positiboan, zorientsuak dira eta zorientsu egiten dituzte beste pertsona batzuk.*

Adierazi behar da, beraz, adopzioa pertsona adoptatuei ingurune normalizatua, segurua eta positiboa eman nahi dien neurri bat dela.

2.1. Egoera-aniztasuna

Adopzioan espezializatutako literatura eta adopzioari buruzko ikerketek erakusten dute, orokorrean, adopzio gehienak positiboak direla, neska-mutilen garapen pertsonala ahalbidetzen dutelako, gazte horiek emaitza positiboak lortzen baitituzte ikasketen arloan eta gizarte-harremanen arloan. Ehuneko hori adopzioen % 80 inguru da. Baina badago bizi-zikloaren edozein etapatan zailtasunak dituzten haurren eta nerabeen ehuneko txikiago bat.

Adopziozko familiek oso lan handia egiten dute beren seme-alaben premiak ulertzen saiatuz. Era berean, ikastetxeetan ezinbestekoa da lan hori egitea. Horretarako, prestakuntza, aholkularitza, jardunbide egokiak eta abar ezinbestekoak dira ikasketa-arloan nahiz arlo emozionalean eta harremanen arloan ikasle horiek dituzten premiei erantzun egokiak eman ahal izateko.

Gida honetan aztertzen diren pertsonen inguruko zirkunstantzien aniztasuna desberdina da. Aldeak daude hainbat aldagairen arabera; esate baterako: adopzio motaren arabera (nazionala, nazioartekoa), adopzio-adinaren arabera eta adopzioaren aurreko historiaren arabera, besteak beste. Horri

¹ Foru Aldundien webguneak

² Artikulua: Palacios, Molina F., Antonio eta Hernán, G., Mariano (2016)

http://www.huffingtonpost.es/jesus-palacios/adoptados-trastornados_b_8053790.html

guztiari ezaugarri pertsonalak, garapen-eremu desberdinen maila, gaitasun kognitiboak, emozionalak, gizarte-arlokoak eta abar gehitu behar zaizkio.

Pertsonen garapena honako arrazoi hauek jar dezakete arriskuan:

1. Adin goiztiarretan abandonatzea arrazoi sozialak, politikoak edo ekonomikoak direla medio.
2. Adingabeen instituzionalizazioa.
3. Jaio aurreko alderdiak eta alderdi perinatalak.
4. Zabarkeria.
5. Abusuak, indarkeriaren eraginpean jartzea.
6. Zaintzarik ez izatea.
7. ...

Kasu askotan, pertsona horien premia afektiboak eta segurtasunekoak ez ziren erabat bete, eta ez zuten emozionalki babestuta zeudela nabaritzeko esperientzia bizi izan. Beste kasu batzuetan, ez dute behar adina estimulu kognitiborik, emozionalik eta sozialik izan. Litekeena da pertsona horien garapenaren hainbat arlori eragin diezaioketen gabezia-egoerak bizi izana; esate baterako, gabezia afektiboa, kognitiboa, konduktuala, harreman-arlokoa...

Bizipen horiek guztiak, babesa ematen duten agintaritzek edo adoptatzaileek ezagutu ala ez, hainbat motatako eta intentsitatetako ondorioak izan ditzakete heltze-prozesuan eta garapen-prozesuan, sozializazio-prozesuan eta ikaskuntza-prozesuan eta erresilientzia-gaitasunean (edo zoritxarraren aurrean konpontzeko gaitasunean).

Haur batzuek premia handia izaten dute etengabe maite dituztela, onartzen dituztela eta balioesten dituztela sentitzeko. Horrek, alde batetik, oraina oso kontuan hartzen duen funtzionamendu bat sortzen du eta premia hori etengabe betetzeko eskatzen dute, eta, bestetik, besteek onartuak izateko mendetasun emozionalarekiko nolabaiteko joera sortzen du.

Bestalde, **atxikimenduaren teoriak** azaltzen du esperientzia goiztiarrek, bereziki bizitzako lehenengo urteetan, garunaren garapena funtsezkoa denean izandakoek, asko baldintzatzen dutela helduak pertsona fidagarritzat eta aurrez ikus daitezkeen modukotzat hartzeko gaitasuna. Segurtasuna ematen duten bizipen horien etengabeko gabeziak portaera disruptibo batzuk azal ditzakete. Atxikimenduaren teoria aipatzen duten egile batzuen arabera, bi atxikimendu mota nagusi daude: atxikimendu segurua eta atxikimendu ez-segurua.

Atxikimendu segurua bizitzako lehenengo urteetan segurtasun-oinarria ematen duena da, adingabeari mundua arretaz aztertzen eta ezinegon- edo

beldur-egoeretan suspertzen dela sentiarazten laguntzen diona. Atxikimendu segurua izan duten haurrek konfiantza dute helduen prestasunean eta ikasi ahal izan dute sentitzen helduak beren premiak ezagutzen dituela, eta, horri esker, segurtasun- eta lasaitasun-ezaugarriak jartzen dizkiote helduari; horrek lagunduko die dituzten premiak eta emozioak arautzen bereziki.

Atxikimendu hori besteekin enpatizatzeke eta besteen lekuan jartzeko gaitasunaren oinarrian dago, lankidetzan eta autokontrollean oinarrituta dauden besteekiko harremanen garapena ahalbidetzen du, norbaitena zarela sentitzen laguntzen du eta emozioak eta sentimenduak modu egokian adierazten laguntzen du. Litekeena da, beraz, ikasle horiek eskola-funtzionamendu naturalagoa izatea, irakaslearen onarpenarekiko eta harremanarekiko mendetasun txikiagoa duena eta autonomia-maila handiagoa eta besteekiko interakziorako gaitasun handiagoa duena.

Atxikimendu ez-seguruaren ezaugarria da atxikimenduko edo erreferentziazko figurei buruzko anibalentzia-sentimendu eta segurtasunik ezeko sentimendu asko daudela. Atxikimendu mota honetako adierazpenek mesfidantza-sentimenduak erakusten dituzte edo atxikimendu helduaren figurak galtzeko beldurra, mesfidantza hori sortzen duten egoerei buruzko neurritz kanpoko amorrua, emozionalki antolatzeke eta tristura, beldurra eta haserrea behar bezala gobernatzeke zailtasunak eta laguntza eskatu ahal izateke edo laguntzen uzteke ezintasuna.


Ikasle horien garapenaren inguruko gaiez gain, oro har, herritarrekin gertatzen den bezala, garapen neurobiologikoan eta nortasunaren garapenean eragiten duten beste alderdi garrantzitsu batzuk ere izan daitezke, hala nola genetika, jaio aurreko baldintzak eta baldintza perinatalak, ingurune sozioekonomikoa, kultura-arloko gaiak, eta abar. Ildo horretan, Ana Francia andreak³ eskaintzen digun eskema egokitua azaltzen da 15. orrialdean

2.2. Izan daitezkeen zailtasunak

Adoptatutako ikasleen eta haien ikaskideen artean desberdintasun batzuk daudela ikus dezakegu. Nazioarteko adopzioetik eratorritako ikasleak desabantailekin iristen dira eskola-sistemara, ez dutelako beren ikaskideen esperientzia multzo, jakintza multzo eta heldutasun bera. Nolanahi ere, beren adopzio-izaera onartu behar dute eta kultura-,emozio- eta harreman-arloko erreferentzia desberdinekin eraiki behar dute beren burua. Hori guztia, kasu askotan, arrakastaz garatzen da, baina, beste kasu batzuetan, gerta liteke kalteberagoak izatea eskola-bizitzako eguneroko ezbeharren aurrean; horregatik, beren ikaskideek baino aukera eta arrisku handiagoak izan ditzakete eskola-porrota izateke eta harreman-gatazka gehiago izateke.

Hainbat egoeretatik –hala nola abandonatzeke, baliabide-eskasia duten zentroetan instituzionalizatzeke, zaintzan izandako zabarkeriatik eta abarretatik– eratorritako ondorioek osasun-arazoak, zailtasun kognitiboak, ikasteko zailtasunak, zailtasun emozionalak eta zailtasun sozialak

³ Francia, A. (2013). *La niña y el niño adoptados en el aula. Factores que influyen en la inclusión escolar*. Hilo rojo. BNk itzulua eta egokitua (2016)
BNk itzulua eta egokitua (2016)



eragiten dituzte adingabe horiengan, eta ohikoa da zailtasunak ikustea autoerregulazioan, oldarkortasunean, edo, aitzitik, pasibotasuna, mesfidantza, segurtasunik eza, deskonexioa, frustraziorako tolerantzia txikia eta abar ikustea.

Izan daitekeen beste zailtasun multzo bat bizitza eta mundua ulertzearekin dago lotuta, bizitza eta mundua aztertu ahal izateko edo besteak ulertzeko, bai gauzak eskatzen dituzten eta agindu nahi duten helduak ulertzeko, bai berdinak, hots, beraiekin lehia jarduten dutenak eta elkarlanean aritzen direnak ulertzeko. Era berean, zailtasunak izan ditzakete esperientzia negatiboak, zoritzarrak txertatzeko, baita modu ordenatuan aztertzeke eta gauzen ondorioetatik ikasteko ere.

Ikasle horiek zailtasunak izan ditzakete gatazkei asertibotasunez erantzuteko, eta portaera oldarkor edo pasibo batean erortzeko arriskua dute, edo azken bi kasu horietan bakoitzean txandaka erortzeko. Kasu horietan, eguneroko esperientziak antolatzeke eta interpretatzeko zailtasunak izaten dituzte.


Adinak, adopzio motak, ezaugarri pertsonalek eta abar, baita beste aldagai batzuek ere, eragiten dute ikasle horiek izan ditzaketen premiak era askotakoak izatea, eta, batzuetan, zailtasunak izaten dituzte eskola-bizitzan, esate baterako koadro honetan azaltzen direnak:

IZAN DITZAKETEN ZAILTASUNAK

1. Heldutasun eta garapen txikiagoa, gabezia esanguratsuekin ikasteko, individualizatzeko eta sozializatzeko prozesuan.
2. Garapen ez-harmonikoa hainbat arlotan. Arlo batzuk beste batzuk baino gehiago gara daitezke eta modu ez-harmonikoan bilaka daitezke, aurrerapenekin eta atzerapenekin, jakitetik ez jakitera igaro daitezke denbora-tarte laburrean. Etengabeko ahazteak.
3. Emozioen autokontrol gutxiago izateak eta emozioak erregulatzeko gaitasun txikiagoa izateak eragiten die bizipenak beren emozioetatik deskonektatzea, nahasketa, izaera-labilitatea, frustrazioarekiko intolerantzia, emozioen pasibotasuna, eta, batez ere, zailtasun handiagoak izatea besteekin harremanak izateko, gatazkak konpontzeko eta taldeen bizitzan parte hartzeko.
4. Autonomia, antolamendu eta ordena gutxiago izatea erronkei, zereginei, azterketei eta abarri aurre egiteko. Gainbegiratzerik eta laguntzarik gabe, nekez lan egiten dute.
5. Mesfidantza, autoestimu txikia, bizi-ezkortasuna, plazeraren bilaketa konpulsiboa.
6. Zailtasunak hizkuntza-garapenean. Nazioarteko adopzio-kasuetan, hizkuntza-aldaketak eta ama-hizkuntzaren garapena eteteak hizkuntzari eta ezagutzari eragin diezaieke. Horren ondorioz, hiztegi laburragoa eta mintzamen urriagoa izaten dute; horrez gain, estrategia eta tresna gutxiago izaten dituzte eguneroko gertaerak ulertzeko, komunikazio-trebetasun gutxiago izaten dute eta abar.
7. Trebetasun motor (fina edo lodia) gutxiago izan ditzakete

Adingabe horiei laguntzeko, irakasleek “erresilientzia-tutore” bilakatu behar dute. Erresilientzia ezbeharrak gainditzeko eta normaltasun-, oreka- edo ongizate-puntu batera itzultzeko pertsona guztiok dugun gaitasuna da.

Ikasle horiek, sentitzen dutenean babesten dituztela, laguntzen zaiela, barnean hartuta daudela eta onartzen dituztela, testuingurura gehiago egokitzen diren portaerak erakuts ditzakete. Beste adingabe batzuekin gatazkak dituztenean, esaten dietena ulertzen ez dutenean, eraso egiten dietela sentitzen dutenean, ordea, egokia ez den funtzionamendu batez portatu ohi dira.



Profesionalen benetako erronka eskola-ingurune segurua eta haurren premia indibidualetara egokituta dagoena eskaintzea da.

Ikasgelako proposamenen zorrotasunak ikasle adoptatuen bilakaerari eragiten dio.

2.3. Kontuan hartu behar diren ahalmenak eta indarrak

Ikasle horiek ezagutzeak berekin dakar ikasle horien indarguneak, gaitasunak, ahalmenak eta interesak ezagutzea. Benitoren hitzetan:⁴ *“Gizaki oro zoritxarra gainditzeko eta aurrera jarraitzeko gai da, zoriontsu izateko eta besteak zoriontsu egiteko gaitasunarekin”*. Are gehiago, Benitok egiten duen deskribapenari jarraikiz, honako hau erantsiko genuke: *“Hori horrela da haurtzaroan tratatu txarrak pairatu dituztenentzat ere”*; *“traumaren ondorioek garunari kalte egiten dioten arren, organo zoragarri horrek eusteko eta ezbeharrak gainditzeko gaitasuna ere badu”*

Garrantzitsua da, beraz, hezkuntza-arloko esku-hartzeak ikasle horiek dituzten indarretan eta ahalmenetan oinarritzea. Koadro honetan, indar eta ahalmen batzuk biltzen dira:

AHALMENAK ETA INDARRAK

- | | |
|--|---|
| 1. Egokitzeko gaitasun handia. | 5. Soziabilitatea, lagunak egitea, gizarte-arloko ekitaldietan parte hartzea eta abar gustatzen zaie, beren berdinen eta helduaren gogoko izaten saiatzen dira, haien onarpena behar dute kide izatearen zentzua garatzeko. |
| 2. Plastikotasun handia indarberritzeko garaian. Beren erresilientzia-gaitasunari esker, beren garapenean indarberritu daitezke eta testuinguruko eskakizunetara egoki daitezke. | 6. Eskolara joateko, ikasteko eta abarretarako interesa. |
| 3. Ahaleginak egiteko gaitasun handia, nahiz eta beti ez ikusi. | 7. Barne-indar handia borroka egiteko eta beren helburuak lortzeko. |
| 4. Inguruan duten munduarekiko interesa eta jakin-mina. | |

⁴ Benito, R. (2015, *Neurobiología del apego*. Haurren atxikimenduari eta erresilientziari buruzko II. Elkarrizketetan aurkeztutako PowerPointa. Donostia. Argitaratu gabeko dokumentua

2.4. Adopziozko familien ezaugarriak eta beharrak

EAEan, 2016. urtean, 4.000 adopziozko familia inguru daude⁵, eta horietatik % 80 familiak baino gehiagok nazioarteko adopzioa aukeratu dute. Familia horien artetik, kopuruari dagokionez, adopzioak Errusian, Txinan, Ukrainan eta Kolonbian egin dituztenak nabarmentzen dira. Oraindik ere urria da Afrikatik eta Asiako beste eskualde batzuetatik adoptatutako adingabeen presentzia; nolahi ere, azken urte hauetan gora egin du adopzio kopuruak hainbat herrialdetan; esate baterako, Etio pian.

Gurasotzakoak, orokorrean, guraso-gaitasun fidagarriak dituen eta seme-alaben egoerarekiko konpromiso handia duen gizarte-kolektibo bat dira. Maiz joaten dira prestakuntza-jardueretara, tailerretara, guraso taldeetara, hitzaldietara eta topaketetara, eta leku horietan esperientziak trukatzeko dituzte, elkarri laguntza ematen diote, elkarrekin harremanetan jartzen dira eta adierazten dute ulermena eta arreta jasotzen dutela profesionalengandik eta esperientzia handiagoa duten beste gurasotzako batzuegandik.

Azken urte hauetan, eta adoptatutako pertsonen adinaren batezbestekoa nerabezaroaurrera eta nerabzarora iristen joan den neurrian, premia agertu da, inpaktu eta kezka handiz, adopziozko familietan etapa horietako portaera-arazoei eta jokabide arriskutsuei aurre egin behar izateko eta oker deitzen zaien “adopzioko porrotak” prebenitzeko modua zein den jakiteko. Oker deitutako adopzioko porrot horiek askotan elkarbizitzako hausturak izaten dira, eta behar bezala landu daitezke, baina sufrimendu handia eragiten diete familiei eta adoptatutako pertsoneri.


Nerabzaroa funtsezko unea da adopzioan esku hartzeko, bereziki zailtasunak eta kasu batzuetan osasun mentalaren eremuko arazoak dituzten neska-mutilen kasuan.

Era berean, adin-nagusitasunaren inguruan, adoptatutako pertsona batzuek beren jatorria bilatzeari ekin diote, bereziki estatuko adopzio-kasuetan; nolahi ere, une honetan gero eta kasu gehiagotan eskatzen dute bitartekotza eta laguntza nazioartean adoptatutako pertsonak ere.

Kontuan hartu behar den beste alderdi bat adoptatutako seme-alaben desberdintasun fenotipikoekin lotuta dago –arrazagatiko desberdintasun ere deitzen zaie horiei, oker deitu ere–. Erronka horri erantzun behar diete familiek ikastetxeekin batera, diskriminazio-, arrazakeria- eta xenofobia-esperientzien biktimak izan ez daitezzen.

⁵ Foru Aldundien webguneak

ADOPTATUTAKO
IKASLEEI
ESKOLA
INKLUSIBOAN
EMAN BEHARREKO
HEZKUNTZA-ERANTZUNA



3

3

ADOPTATUTAKO IKASLEEI ESKOLA INKLUSIBOAN EMAN BEHARREKO HEZKUNTZA-ERANTZUNA

3.1. Eskola inklusiboaren ezaugarriak eta printzipioak

Ikasle guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea izatea bermatzea dakar hezkuntza-inklusioko, eta hezkuntza-bereizkeria eta -bazterketa oro gainditu behar da horretarako.



Eskola inklusiboa desberdintasun indibidualetara irekita dagoen eskola da; eskola horretan ikasleak artatu eta babesten dira, eta giro abegikor baten bitartez, sistema erresiliente gisa eraikitzen da eta ikasle guztiei laguntzen die erabat garatzen.

Inklusioak komunitatean inplikaturik dagoen eskola dakar berekin, partaidetza, ikaskuntza eta familiekin egindako baterako lana bultzatzen duen eskola, helburu komun batekin: ikasleen ongizatea lortzea kalitatezko ikaskuntzarekin batera.

HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN EZAUGARRIAK

1. Ikasle guztiak inolako baldintzarik gabe onartzea ohiko eskoletan eskola-etapa osoan.
2. Eskola-arrakasta lortzeko behar diren laguntzak ohiko eskoletan antolatzen dira.
3. Zuzendaritza-taldeek eta irakasle guztiek inklusioarekiko lidergo eta konpromiso handia izatea.
4. Hezkuntza-ekitatea eta -bikaintasuna dira ikasle guztientzako helburuak.
5. Curriculum-ikuspegi irekia eta ikaskuntzaren eskuragarritasun unibertsaleko diseinuak.
6. Familiarekiko elkarlana.

3.2. Hezkuntza-sistemak gainditu behar dituen oztopo posibleak

3.2.1. Ikastetxean landu behar diren oztopoak

Eskola inklusiboa eraikitzeko, ezinbestekoa da ikastetxeak berak dituen oztopoak identifikatzea, ikasle guztien benetako partaidetza bermatuko duten jardunak diseinatzeko.

1 “Erdi-mailako” ikasleei bideratutako curriculumen aurrean, zeinetan ikasle batzuk bereziki kalteberak diren, eta ikaskuntzarako sarbidea mugatu samarra den...

Ikastetxeak ahaleginak egin behar ditu curriculum malguak ezartzeko.

2 Koordinatzea eta familiarekin nahiz komunitateko sareekin lan egitea zaila bada...

Eskolak konfiantzan eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako harremanetarako bideak eta baliabideak ezarri beharko ditu, baterako ekimenak eta ekintzak ahalbidetzeko eragileek egiten dituzten ekarpenak txertatuz. Eta, bereziki, familiaren eta eskolaren arteko baterako lana bermatuko duten elkarrizketarako guneak eta komunikaziorako bideak sortuz.

3 Irakasleek gai horri buruzko pedagogia-prestakuntza behar badute, eta gai horren inguruan eguneratu behar badute...

Eskolak honako hau egin beharko du:

-Ezaugarriei, premiei eta gakoei buruz sentsibilizatzeko, informazioa emateko eta prestatzeko jarduerak garatu beharko ditu ikasle horiei hezkuntza-arloko erantzuna emateko.

-Irakasleen gaitasuna areagotzera bideratutako alderdiak landu beharko ditu alerta-seinaleak identifikatzeko, eta ikasleen premietarako egokiagoak diren hezkuntza-arloko esku-hartzeak ezarri beharko ditu modu partekatuan

4 Adopzioari buruz aurreiritziak eta uste faltsuak eta irakasleen jarrera desegokiak badira...

Eskolak kanpainak, jardunaldiak eta sentsibilizazio-topaketak egin behar ditu. Era berean, ikastetxeko espezialisten, Berritzeguneren edo gizarte-ingurunearen laguntza eta lankidetzak eskatu behar du.

Halaber, aholkua eta lankidetzak eskatu behar die elkarteei eta familiei, eta adoptatutako beste ikasle batzuei beren prozesuan lagundu diezaieketen eta beren lekukotza eman diezaieketen adoptatutako ikasle ohiei.

5 Ikasleen eskolatzearen aurrean...

Eskolak eskolatzearen hasieran eta eskola-egokitzapenean eragiten duten aldagai guztiak eduki behar ditu kontuan; horretarako, kasu bakoitzaren berezitasunetara egokitzen den harrera-plan bat antolatu behar du, familiarekin lankidetzak estuan jardunda.

3.2.2. Ikasgelan landu behar diren oztopoak

Batzuetan, ikasgelan hainbat oztopo ikusten dira, eta oztopo horiek, nahita jarritakoak ez badira ere, eragotzi egiten dute ikasleen ikaskuntza eta garapen afektiboa, emozionala eta soziala. Irakasleek detektatu behar dituzte oztopo horiek, gainditzeko neurriak aplikatzeko. Jarraian, oztopoen adibide batzuk eta ikasgelan gainditu ahal izateko modu batzuk aipatuko dira.

1 Ikaskuntzaren gizarte-erakuntza eta ikasleen partaidetza aktiboa sustatzen ez duten metodologia bateratzaileak erabiltzen direnez, eta desberdintasun indibidualak kontuan hartu gabe, taldea-ikasgela homogeneousat hartzen denez, eta hori okerra denez, honako hau egin beharko da...

- Elkarlaneko metodologiak, metodologia laguntzaileak, aktiboak, elkarreragileak eta une sozialera egokitzen direnak ezartzea, ikasleen idiosinkrasia errespetatuz.
- Haur horien emozioen funtzionamendura egokitutako eta ikaskuntza pertsonalizatzen bideratutako metodologiak sustatzea, ezaugarri pertsonalak errespetatuz.
- Ikasgela edo ziklo barruan helburu komunak dituzten lantaldeak edo lankidetzak sortzea, zeinetan parte-hartzaile bakoitzak paper desberdin bat garatuko duen eta bere erantzukizuna hartuko duen.
- Ikasleen arteko elkarrekintza sustatzea, bai bideratutako jardueretan (talde-lanak, berdinen arteko tutoretzak, berdinen arteko laguntzak...), bai beste jarduera askeago batzuetan (jolas-garaiak, aisiarako uneak...).

2 Plangintza didaktikoa bakarria denean ikasle guztientzat: lan bera, eskakizun-maila bera, jarduera berak, denbora bera, etxeko lan berak, ebaluazio bera... lan egin beharko da honako hau lortzeko...

- Proposamen didaktiko irekiak eta testuinguruan kokatuta daudenak ezartzea, ikasgelako ikasleen gaitasunen eta erritmoen arabera, guztientzako itxaropen handiak eta egokiak bermatuz, baina bereziki ikasle horiek arrakasta izan dezaten ikasketa-jarduerak garatzen.
- Ikasgelako irakasleei laguntza antolatzea metodologia-antolamenduan malgutasuna ahalbidetzeko, ikasle guztien premia espezifikoei erantzuteko ahal izateko
- Lanak gauzatzeko eta aurkezteko denbora bat baino gehiago eta ikasketa-maila bat baino gehiago onartzea, ikaskuntzei lehentasuna emanaz. Litekeena da ikasle batzuek denbora gehiago behar izatea zereginak gauzatzeko.
- Etxeko lanak neurtzea eta ikasle horien gaitasunera egokitzea, gehiegizko zama ez izateko, betiere ulertuta etxeko lanek ikasitakoa sendotzeko eta finkatzeko balio behar dutela.

3 Ebaluazioa buruz ikasitako jardueretatik abiatuta edo ebaluazioa gaitasunen, trebetasunen, talentuen eta interesen desberdintasun indibiduala errespetatzen ez duen kontzeptu-dukien erreprodukzioetik abiatuta soilik proposatzen bada, edo ebaluazio horrek ez badu kontuan hartzen adoptatutako ikasleen historia, irakasleak honako hau egin beharko du...

- Ikaslearen ikasteko prozesuari eta errendimenduari buruz behar den informazioa biltzeko prozesuan oinarrituta dagoen ebaluazio bat proposatzea.
- Metodo eta material ugarien bitartez ebaluatzea, ikasleen ezagutzak, trebetasunak, interesak eta motibazioak zehaztu ahal izateko, betiere ikasteko prozesua bideratzeko asmoz.
- Lan egiteko modu desberdinak onartzea, bai lana egiteko garaian, bai lana aurkezteko garaian.
- Ikasleen autoebaluazioa eta haien ikaskuntzari buruzko gogoeta bultzatzea.
- Adingabeari bere lorpenak eta aurrerapenak nabarmentzea, haurrak berak eta bera bezalakoek arrakasta lortzeko itxaropen positiboak izateko beren buruari buruz.

4 Material mota bakarra erabiltzeari dagokionez –esate baterako, testuliburu bakar bat erabiltzea– edo ikasleen gaitasun, ezaugarri eta interes aniztasunerako egokiak ez diren baliabideak erabiltzeari dagokionez, irakasleak honako hau egin beharko du...

- Informazioa aurkezteko modu bat baino gehiago ematea, formatu malguetan aurkeztuz, zeinak ikasleen ezaugarrien arabera alda daitezkeen.
- Ikasteko beste bide batzuk ere eskaintzea: entzuteko informazioa, ikusteko informazioa, -ahozkoa...

5 Espazioak eta denborak kudeatzeko eta antolatzeko malgutasuna urria denez, espazioa ikasgela itxi eta estanko bihurtzen du horrek, eta ikasleen arteko elkarrekintza eta elkarri laguntzea eragozten da; gainera, ikasle guztientzat denbora berak ezartzen dira. Halakoetan, irakasleek honako hau egin beharko dute...

- Ordutegi-antolamendu malguak ahalbidetzea, ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatuko dutenak eta mugitzeko aukera emango dutenak gauzatu behar den proiektuaren, gaiaren edo zereginaren arabera.
- Espazio irekiak antolatzea, altzariak modu malguan antolatzea...

6 Autoerregulaziorako eta lagun taldeko eta ikasgela taldeko kide delako sentimenduak garatzeko estrategia eta gaitasun gutxi dituzten ikasleak izanik, honako hau egin beharko da...

- Frustrazioa, emozioak eta eguneroko bizitzako egoera zailak kudeatzeko ereduak eta laguntzak ematea.
- Segurtasunik eza sortzen duten egoera sozialei aurre egiteko estrategiak lantzea.
- Beren nortasuna eta taldeko kide izatea eraikitzen eta berenganatzen lagunduko dieten tutoretzak sustatzea ikasgela taldearekin, banaka eta berdinen artean.

3.3. Irakasleentzako orientabide orokorrak

Orientabide hauek irakasleentzat dira, ikasleen gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko hezkuntza-zereginen laguntzeko eta eskolan leku seguru bat eraikitzeko, norberaren ongizaterako eta ikasteko ezinbestekoak diren baldintzak eskainiko dituen leku bat, alegia. Erronka horrek eskatzen du irakasleak prestatzea zoritxarreko esperientzia goiztiarretatik eratorritako ondorioen arloan eta adopzioaren ezaugarriei eta inplikazioei buruz.

Adoptatutako haurren eta nerabeen premia komunak funtsezko lau ardatzi buruzkoak dira. Funtsezko alderdi horiek honako hauek dira: emozioen segurtasuna eta erregulazioa; adopzio-kondizioa; ikasgelako diskriminazio-egoerei heltzeko gakoak; eta tratu onak, harremanak eta trebetasun sozialak.

Ardatz horiek erakusten dute ikasketa-errendimenduarekin lotutako portaera asko eta harreman-arloko zailtasunak segurtasunik ezaren, kezkaren adierazpen gisa edo zailtasun horietako edozeini erantzuteko modu gisa azal daitezkeela.

Hezkuntza-eraldaketak eskatzen du irakasleak ahalduntzea eta irakasleei tresnak ematea ondorengo ataletan adierazten den ildotik.

3.3.1. Emozioen segurtasuna eta erregulazioa

Adingabe horiei lagundu ahal izateko, irakasleek estrategia egokiak erabili behar dituzte. Estrategia horiek eraginkorrak izateko gakoa da strategiak inplikaturako irakasleak ados jarrita eta ikastetxeko zuzendaritzaren laguntzarekin garatzea. Egituratutako eta adostutako funtzionamendu bat sustatu behar da, ikasleen premiak detektatzea ahalbidetuko duen testuinguru bat eskaintzeko eta emozioen garapen egokia ahalbidetuko duen erantzun bat eskaintzeko gaitasun handiagoa sustatuko duen funtzionamendua, alegia.

Emozioen segurtasuna eta erregulazioa sustatzeko orientabide orokorrak:

- **Segurtasuna, prestasuna eta baldintzagabetasuna emango duen lotura ezartzea ikaslearekin.** Ikasleak ikasi behar du bere irakaslearengan konfiantza izan dezakeela. Lotzeak esan nahi du prest egon behar duela gauzak, ondo egiten dituenean ez ezik, egiten ez dituenean edo gaizki egiten dituenean ere; une horietan laguntzeko gai izatea... Hezitzaile sentiberak, emozioei **“aginte baretu”** bidez heltzeko eta gidatzeko gai direnak.
- **Adingabea ikastetxean emozionalki jaso ahal izango duen erreferentziako figura heldu baten prestasuna bermatzea.** Horrek berekin dakar pertsona horrek adingabeari modu sentiberan bermatu behar diola arreta, adingabearen portaera kontuan izan gabe, eta figura irisgarria izan behar du. Irisgarriak ez du esan nahi etengabe egon behar duela prest adingabearen premia bakoitzari erantzuteko, haur horiek autonomo izaten ikasi ere egin behar dutelako. Erreferentziako heldu horrek adingabeari lagundu diezaiokete figura

egonkor bat daukala sentitzen, segurtasuna ematen diola sentitzen, alde batera utzita gainerako irakasleek ere esku hartzeko aukera izango dutela modu naturalean beste edozein egoeratan.

- **Itxaropen handiak eskaintzea eta ematea.** Itxaropen errealistak, baina aldi berean handiak, mugarik eta oztoporik gabeak, adingabeek dituzten ahalmenetan konfiantza izanda. Bereziki garrantzitsua da gogoeta egitea irakasleek eta haurrarekin edo nerabearekin esku hartzen duten eragileek haur edo nerabe horiengandik zer espero duten jakinarazteko normalean (jakinaren gainean edo oharkabean) erabiltzen duten moduari buruz. Hitzezko hizkuntza ez ezik, hitzezkoa ez den hizkuntza ere (isiluneak, keinuak, begiradak...) zaindu behar da itxaropen handi horiek sentiarazteko eta helarazteko benetan.
- **Arrakasta bilatzea.** Arrakastak motibazioa bermatzen du. Ikaslea gai dela eta trebea dela sentiaraztea, lortzen duena jakinaraziz, ez dakiena edo falta zaiona jakinarazi ordez. Zeregina lorgarria izan dadin saiatzea, jarduera arrakastatsua izateko. Ziurtatzea egunean zehar ikasleak zereginak arrakastaz egiten dituela, batez ere lansaiorearen hasieran eta amaieran.
- **Erantzukizuna ematea beren erabakiak hartzeko garaian, hautatzeko aukera emanez,** beren erabakietan inplikatur, izandako jokaerak beren gain hartzeko. Jarduteko gako hori hertsiki lotuta dago ikasleek konfiantzari buruz duten bizipenarekin. Erantzukizunak ematen dituen heldua, fidatzen den heldua izateaz gain, huts egiteko eta akatsetik ikasteko baimena ematen duen heldua da.
- **Arauk eta mugak ezartzea eta azaltzea, baina arau eta muga gutxi eta argiak izango dira.** Arauk eta mugak adosteko garaian ikasleek parte har dezaten sustatzea. Ikasgelaren jokaera eta giro demokratikoa arautzera bideratutako estrategia egokiak lantzea ikasgela osoarekin.
- **Une bakoitzean haiengandik espero dena azaltzea,** azalpen laburrak eta sinpleak emanez. Pixkanakako aldaketetara prestatzea ikasleak.
- **Ikasleek ikasgelan duten kokapena zaintzea,** banako jardueretan nahiz taldekoetan behar duten laguntza eman ahal izateko. Zeregin bakoitzerako denborak esplizituki ezartzeak laguntzen du adingabeek –bereziki, emozioen erregulaziorako zailtasunak dituztenek– antolatu eta planifika dezaten.
- **Ez eskatzea ez daukaten autonomiarik.** Kanpoko iraunkortasun bat behar dute, aginte baretuz jarduten duen eta haurraren iragazki egonkortzailea izango den irakasle bat.
- **Autokontzeptu positiboa eraiki dadin bultzatzea, berdinen taldeko kide direla sentiaraziz,** eta haiekin identifikatur. Beren parekoekiko loturak aberasteak eragiten du elkar hobeto ezagutzea, dituzten desberdintasunak onartzea, eta, gainera, ahalbidetzen du

autokontzeptu egokia eta positiboa eraikitzea. Horrez gain, kontaktuaren, harremanaren eta elkarrekintzaren bitartez empatia, elkartasuna eta gizarte-loturak areagotzen dira, eta horrek laguntzen du ongizate partekatua lortzen.

- **Ikasleak onartzea, ikasleen ezaugarri pertsonalak ezagutzea eta ikasleen desberdintasunak errespetatzea** onarpen positibotik, nortasun propioari balioa emanez. Nortasun hori eraikitzeko, ikasleei beren indarguneetan lagundu behar zaie eta hobetu behar dituzten alderdien berri eman behar zaie. Beste profesional batzuekin koordinatuta lan egiteak eta familiaren partaidetzak arrakasta izateko bermea ematen du.
- **Errefortzu positibo egituratua erabiltzea.** Literatura espezializatuaren arabera, mugak afektu- eta zaintza-adierazpenak dira, eta hurrek ikasi egin behar dute haiak barneratzen. Era berean, literatura horrek adierazten du afektu negatiboak edo zigorrak deiturikoez jokabideari eusten diotela baina ez dutela aldatzen. Errefortzu positiboa jokabidearen aldaketa sustatzeko mekanismo bihurtzen da berez. Askotan, zailtasun gehiago izaten dituzten adingabeek arrazoi gehiago ematen dituzte kezkatzeko indartzeko aitzakiak baino; horregatik, errefortzu positiboak, tradizionalki erabili izan den bezala, ez du funtzionatzen. Ikasleen portaera hobetzeko modu bat errefortzu positibo egituratuaren bitartez da.
- **Jolastokiak eta jantokiak haurren zailtasun horiek erregulatzeko funtsezko beste leku batzuk bezala planifikatzea, antolatzea eta egituratzea.** Ikasgelan gertatzen denak jolastokian gertatzen denak bezainbesteko garrantzia du. Gune horiei hezkuntza-edukia eman behar zaie, ikasteko benetako gune bihurtuz.
- **Hainbat estrategia ezartzea, hala nola “Dortokaren teknika”¹,** jokabide oldarkorra autokontrolatzeko metodo bat.
- **Banakako uneak egituratzea neska-mutil horiekin.** Helburua ez da une luzeak izatea, baizik eta adingabeek jakitea aldez aurretik planifikatutako banakako denbora bat izango dutela beren erreferentziazko figurarekin, eta denbora hori ez dela eduki ditzakeen gorabeheren arabera izango. Erreferentziazko figura horiek gutxienez bi minutu bermatuko dizkiete egunaren hasieran eta amaieran... Gune horretan definitu beharko da egun bakoitzean zer jokabide lantzen saiatuko diren bereziki, jokabide hori argi eta garbi mugatu beharko da eta lortzeko modukoak diren jokabideetara mugatuko da eta/edo honako definizio hau sustatuko da: zailtasun horiek dituen haur bat laguntza eske joango da bere onetik ateratzen hasten denean, eta abar. Banakako tutoretzetatik haratago doa, haurrengandik espero den jokabidea eta laguntza nola eska dezakeen pixkanaka ikas ditzakeen haurra erregulatzeko laguntzen duten une laburrak dira.

¹ Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu honako esteka hauek: <https://www.youtube.com/watch?v=ow3dEsZMdfQ> eta http://www.aprendiendocon-tdah.com/materiales/la_tecnica_de_la_tortuga.pdf

ORIENTABIDE

ESPEZIFIKOAK EMOZIOEN SEGURTASUNA ETA ERREGULAZIOA SUSTATZEKO HAUR HEZKUNTZAN ETA LEHEN HEZKUNTZAN

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapak bat etorri ohi dira familia-bizitzan eta gizarte-ingurunean erabat integratzeko ekintza gertatzen den aldiarekin. Denboraldi horretan ezarri behar dira adopziozko familiarekiko loturak eta ingurunean integratu behar dute.

Hori lortzeko, garrantzitsua da haurrak zaintzen edo artatzen dituzten helduek ikasleen premien berri izatea ikasleen adierazpenen eta jokabideen bitartez, **eta honako zeregin hauek garrantzi berezia hartzen dute:**

1. Ikasleari laguntzea bere emozioak eta bizipenak identifikatzen. Hori funtsezko prozesua da ondorengo bilakaera-etapetan neska-mutil horiek beren emozioak kontrolatzeko gaitasuna eta emozioen erregulazioa hobetu dezaten
2. Ikasle horien bizitzaren historiara hurbiltzea hau guztia zalantzan jar daitekeen guneetako bat denez, Lehen Hezkuntzako ziklo aurreratuenei dagokie modu sakonagoan ulertzea zergatik adoptatu zituzten eta adopzioari buruzko alderdiak.
3. Gertatzen zaiona ulertzen laguntzea. Lehen Hezkuntzan ikasleak gehiago jabetzen dira beren ahalmenez eta mugez. Horregatik, lagundu egin behar zaie beren gaitasunak eta indarrak sendotzen, baita beren alde ahulenak detektatzen ere, pixkanaka hobetu ahal izateko.

ORIENTABIDE

ESPEZIFIKOAK EMOZIOEN SEGURTASUNA ETA ERREGULAZIOA SUSTATZEKO BIGARREN HEZKUNTZAN

Bestalde, Bigarren Hezkuntza eta aurrenerabegaroko eta nerabegaroko bilakaera-etapak aldi berean gertatu ohi dira. Adoptatutako pertsonen kasuan, etapa hori modu konplexuagoan eta emozioen intentsitate eta aldakortasun handiz bizi ohi da. Beren kezkek argitzeko eta ordenan jartzeko garaia da. Nerabegaroko berezko krisiak bide bihurtzen dira beren historiari buruzko kontaketa bat egitea lortzeko, beren historiari koherentzia emateko eta nortasun bat eta nonbaiteko kide direlako sentimendua, segurtasuna emango diena, lortzeko.

Jokabide konplexuenek eta/edo zailenek adierazi behar diren kezka edo beldurrei erantzun diezaiekete. Halaber, nerabe batzuek izan ditzaketen arrisku-jokabide batzuk minaren eta sufrimenduaren adierazpenak dira, eta horrek erakusten du ez dutela estrategia egokirik egoera gainditzeko.

Adoptatutako nerabeek honako hau behar izaten dute:

1. Beren historiako piezak ordenan jartzea eta askotan erantzun zaila duten galderei eta zalantzei aurre egitea...
2. Maite dituztela eta onartzen dituztela sentitzea, Bigarren Hezkuntza eta emozioen gogortasun handieneko etapa aldi berean gertatzen direlako. Etapa horretan, adoptatutako nerabeen ahultasunak aurreko etapan baino premia askoz ere larriagoa erakusten du.
3. Onartuak eta identifikatuak sentitzeko aukera ematen dieten adiskide talde egonkorak eduki ditzaketela eta talde horiei euts diezaieketela sentitzea.
4. Beren burua onartzea, beren zailtasunak kontrolatzen eta zailtasun horiei eusten ikastea.

3.3.2. Adopzio-kondizioa

Bere adopzio-kondizioa ulertzea eta lantzea bizitzako etapetan eraiki behar den prozesu bat da. Haurtzaroan hasten da eta nerabezaroaren inguruan iristen da krisi- eta intentsitate-garai handienera.

Nahiz eta adopzio-kondizioa lantzea familiari dagokion, eskolak honako rol hau izan dezake prozesu honetan:

- Adoptatutako pertsonari eta haren familiari laguntzea eta guztiak babestea.
- Adopziozko familiaren eta adoptatutako pertsonen eredia berezitasunak dituen, baina egonkorra den beste familia-esperientzia bat bezala aurkeztea.
- Ikasleei eta adopziozko familiei buruzko informazioaren konfidentziasuna errespetatzea eta hausnartu edo landu behar dena adingabeak eskola-ingurunean dituen premietan ardaztea.



Adopzioaren tratamendua Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailetan, adoptatutako haurrak beren aurreko historiari eta beren adopzioaren arrazoiei buruzko galderak egiten hasten dira beren buruari. Litekeena da nolabaiteko beldurra izatea ikastetxean sortzen diren galderak beren adopziozko gurasoengana irits daitezkeelako. Litekeena da adoptatutako ikasleentzat zaila izatea emozionalki bi familia-errealitate dituztela ulertzea, nahiz eta legalki bakarra izan. Horregatik, irakasleek lagundu behar diete galdera horiek familiarengana irits daitezen, prozesu hori naturaltasunez bizitzeko.

Adopzioaren tratamendua Bigarren Hezkuntzan

Bigarren Hezkuntzan ezinbestekoa da iraganak duen garrantzia ulertzen laguntzea bereziki, baita norberaren nortasuna eraikitzen laguntzea ere, norberaren historia onartuz.

ORIENTABIDE

ESPEZIFIKOAK ADOPZIOA HAUR HEZKUNTZAN ETA LEHEN HEZKUNTZAN TRATATZEKO

1. Dauden familia-eredu desberdinak aurkeztea, besteak beste adopziozko familia. Komenigarria da familia-eredu horren aurkezpena familia-eredu desberdinen esparruan egitea, haur horiek ez etiketatzeko eta dagoen familia-aniztasun handia erakutsiko duen irudia faboratzeko.
2. Arreta handiagoa jartzea adoptatutako haurrek dituzten premiak identifikatzeari haur horiek dituzten zailtasunei eta gatazkei baino. Etapa horretan, ikasleen adierazpenak premien adierazpen gisa ulertu behar dira, eta premia horiei ulertze dinamiko eta posibilista batetik erantzun behar zaie, emozioak maneiatzen lagunduz.
3. Bizitzako lehenengo urteei buruzko argazkiak bilatzea edo urte horiei buruzko kontaktak egitea eskatuko duten lanik ez egitea.
4. Tristura adierazten duten jokabideak identifikatzen laguntzea, nahiz eta haserre edo amorru gisa adierazi. Ezinbestekoa da ikasle horiei laguntzea gertatzen zaiena beren iraganari, orainari edo etorkizunari buruzko kezkekin lotuta ote dagoen identifikatzen. Adin horietan oraindik ezin dute gertatzen zaienari buruzko kontaketa koherente eta oso bat egin.
5. Ikasle horiek eduki ditzaketen kezkak eta beldurrak ezagutzea. Kezka horiek irakasleek haurarekin eta haren gurasoekin argi eta garbi adieraz ditzaten laguntzea. Irakasleak gai direnean haurrak bere kezkei hitzak jar dakizkion laguntzeko, hobetu egiten da haur horrek kezkei heltzeko duen gaitasuna.
6. Gurasoengandik eta irakasleengandik entzutea bere jokabideek kezka eta beharbada tristura adierazten dutela. Horrela laguntzen da bizipen batean gehiegi ardatzen bada, esate baterako haserrean ardatzen bada, beldurraren edo tristuraren adierazpentzat hartzen.
7. Laguntza eskatzen irakastea. Ikaslearekin bakarka jarduten denean, kezkak lantzeko une jakin batzuk edukitzea orientabide egokia izan daiteke haurrak sentitzeko irakasleak ulertzen duela. Helburua zera da, ikasleei laguntzea premiak edo kezkak dituztenean laguntza nori eskatu behar dioten ikas dezaten.
8. Kezka horiek erakusten dituzten kasuetan, lagungarria izan daiteke kezka hori marrazkien, kontaketa laburren edo ipuinen bitartez azaltzea. Esperientzia mingarriak bizi izan dituzten haurren istorioei buruzko ipuinak oso baliagarriak izan daitezke.
9. Haurra naturaltasunez tratatzea eta irakasleek adoptatutako haurraren etiketa jartzeak dakarren arriskuaz ohartaraztea. Nahiz eta aurreko esperientziak eragina duten egoera jakin batzuen aurrean erreakzionatzeko duten moduan, hori ez da ikasle horien portaera azaltzen duen aldagai bakarra.



ORIENTABIDE

ESPEZIFIKOAK ADOPZIOA BIGARREN HEZKUNTZAN TRATATZEKO

1. Irakasleek ezagutzea adoptatutako pertsonen zalantzak eta beldurrak. Adin horietan izaten diren zalantzak edo kezkek zehatzagoak dira eta norbaitekin identifikatu ahal izateak soilik lagundu dezake beren emozioen intentsitatea jaisten. Horregatik, bere iraganari buruzko zerbaitek kezkatzen ote duen galdetzeak edo antzeko zerbait galdetzeak, adibidez, ez dio kalterik egingo, baizik eta hitzak jartzen lagunduko dio; era berean, lagunduko dio, alde batetik, laguntzen dion pertsonarengan arbuiorik sorrarazten ez diola ikusten eta, bestetik, egoera horiek naturaltasunez bizitzen.
2. Ditutzen mugak eta ahalmenak ulertzen laguntzea. Etapa horrek aurrera egiten duen neurrian, garrantzitsua izan daiteke ulertzen laguntzea beren kezkek ikasi ahal izateko eta ikasgelan arreta jartzeko gaitasuna zaildu dezaketela. Ikasle horientzat baliagarria izan daiteke honako hau ulertzen laguntzea: ikasteko gaitasuna ordenagailu baten RAM memoria bezalakoa dela eta memoria iraganeko kezkekin okupatuta badago, ezin duela orainaldiko gaietan arreta jarri.
3. Antzeko egoerei aurre egin dieten pertsona-ereduak bilatzen laguntzea. Ikasle horien kondizioa lantzeko prozesua eta nerabegaroko krisia elkartzen direnean ezinbestekoa da antzeko esperientziak bizi izan dituzten eta esperientzia horiei modu positiboan aurre egin dieten kanpoko erreferentziazko figurak aurkitzea (pertsona ospetsuak, ezagunak eta abar). Zeregin hori tutoretza pertsonalizatuko guneetan landu daitekeen zerbait izan daiteke. Horri esker areagotu egin daiteke segurtasun-sentsazioa adoptatutako pertsonarengan bere aldaketa propioan.
4. Onartzeko eta laguntza eskatzeko gaitasuna entrenatzea. Aurreko etapetan bezalaxe, laguntza eskatzeko gaitasuna gara dezaten, besteak lagundu diezaieten uzten eta bizitzen ari diren guztia prozesu natural eta ulergarri baten zati dela ulertzen lagundu behar zaie. Hori guztia garrantzitsua da ikuspegi zabal eta positibo bat emateko, eta, horrela, uneari aurre egin diezaiokete berme pertsonalekin.
5. Sentimendu negatiboak identifikatzea eta maneiatzea. Nerabegaroz izaten da gaitasun gehiago haserrearen sentimendu-bizipenerako. Negatibotasuna adierazteko modu funtzionalak bilatzeko aukera izan dezaten laguntzea (negatibotasuna margotzea, negar egitea, ariketa fisikoa egitea, eta abar) eta negatibotasuna batez ere ikasgelan eta ikaskideekin landu ahal izateko moduari buruzko akordioak eta konpromisoak ezartzea gune indibidualetan landu behar diren eta errefortzu positibo egituratua eskatzen duten estrategia eraginkorrak dira.

3.3.3. Ikasgelako diskriminazio-egoerei heltzea

Adoptatutako haur eta nerabe asko nazioarteko adopzioetik datoz eta gehienak Txinatik, Ukrainatik, Errusiatik, Etiopiatik eta Kolonbiatik... Adingabe horien inklusioak, beraz, eskatzen du desberdintasun fenotipikoak izateak bizi-zikloko une batzuk baldintza ditzakeela aintzat hartzea.

Fisikoagatiko eta arrazagatiko desberdintasunak 7 urtetik aurrera ulertzen hasten dira bereziki, eta gai horren garrantzia areagotu egiten da nerabegarora bitarte; aro horretan gehiegi magnifikatzen da desberdina sentitzearen bizipena.

Adoptatutako haurrek beren burua ezagutu behar dute beren adopziozko familiei begiratzan dietenean, baina "ispilu biologikorik" ez izateak oraindik ere konplexuago egin dezake ekintza hori. Kezka horri inguruneke zurrumurruak gehitzen zaizkienean, non arraza-alderdiak edo jatorri desberdineko alderdiak modu desegokian islatzen diren, litekeena da adingabea barru-barruan kaltetuta sentitzea eta horrek emozioetan eta eskola-mailan eragin diezaioke.

Adoptatutako ikasleek arrazakeria paira dezakete ezaugarri fenotipiko desberdinak izateagatik, xenofobia paira dezakete beste herrialde batzuetatik eratorzeagatik eta diskriminazioa paira dezakete adoptatuak izateagatik.

Berdinen arteko gatazkak adinaren berezko zerbait diren arren, beren jatorrizko herrialdeari buruz, beren adoptatu-kondizioari buruz edo beren adopziozko familiari buruz jaso ditzaketen deskalifikazioek edo irainek emozio-inpaktua sortzen dute eta horri ematen dioten erantzuna askotarikoa izan daiteke. Haur edo nerabe batzuek gatazka-egoeretan sartuta ikus dezakete beren burua (borrokak, erasoak eta abar), beste batzuek, ordea, beren bizipenak erreprimitzeko joera izan dezakete eta horrek eskola-errendimenduan eragiteaz gain, eskolan gizarte-isolamenduko jokabideak areagotzea sustatzen du.

Ezinbestekoa da jakitea izan ditzaketen bizipen horiek zer eragin duten adoptatutako pertsonengan, adoptatutako ikasleek normaltasunez landu beharko duten prozesua ikastetxeko gurasoen arteko edo adoptatutako familien eta irakasleen arteko gatazka bihur ez dadin.



Arrazakeria- eta diskriminazio-egoerak daude ikastetxeetan, eta egoera horiek ere ematen dira adoptatutako neska-mutilen kolektiboan. Ikastetxearen zeregina honako hau izango da: alde batetik, egoera horiek prebenitzen eta saihesten lagundu behar du ikasle guztiak sentsibilizatu, eta, bestetik, egoera horiek ikasle horiengan duten inpaktua ikusteko gai izan behar du, eraginpeko pertsonen erantzuteko jarraibideak eskainiz.

Egoera horiek neska-mutilek konpon ditzakete beraiekin harremanak izango dituzten eta maila emozionalean antzeko egoerak atzemango dituzten adingabe taldeak bilatuz. Ohikoa da adopziozko familiak kezkatuta egotea talde itxiagoetara hurbiltzeagatik, talde horietan arrisku-jokabideak izan daitezkeelako. Harreman-aldaketa horrek erakusten du adoptatutako pertsona bakoitzak nerabezaroan nola erantzuten dion norena naiz edo noren antza handiagoa dudala uste dut galderari.

1 Irudia. Ikasgelako diskriminazio-egoerei aurre egiteko gakoak



- **ZERO tolerantzia arrazakeriarekin.** Ikastetxeek taldeko tutoretzetan gai hori lantzeko guneak sustatu behar dituzte; era berean, egoera horiek bizi dituzten pertsonak babestu behar dituzte, egoera horiek minimizatzea, normalizatzea edo gaindimentsionatzea saihestuz.
- **Diskriminazio mota oro arbuiatzea.** Irakasleek jokabide argia eta irmoa izan behar dute xenofobiaren eta arrazakeriaren aurrean, litekeena delako ikasleak familiaren edo irakasleen kontrolatik edo gainbegiradatik kanpo daudenean diskriminazio-egoera horiek gertatzea. Horregatik, irakasleen jarrera pertsonala eta ikasgelako lana bereziki garrantzitsuak eta esanguratsuak dira egoera horiek paira ditzaketan ikasleak defendatzeko.

- **Prebentzioa eta esku-hartzea.** Dagoeneko adierazi dugu egoera mota horiek prebenitzeko ekintzak gauzatzen dituztela ikastetxeek, baina azken urte hauetan ikusi da ezinbestekoa dela, gainera, prebentzioko kanpaina eta ekintza horiek egiten jarraitzea ez ezik, ikasleei hainbat estrategia garatzen laguntzea ere, ikasleek beren burua asertiboki defenda dezaketela sentitzen lagunduko dieten estrategiak hain zuzen ere, ikastetxean dituzten erreferenteen laguntzarekin.
- **Ikasleen inplikazioa.** Diskriminazio-egoera horietako asko ikasgelatik kanpo gertatzen dira, baina eskola-ingurunearen barruan; horregatik, ezinbestekoa da ikasle guztiak sentibilizatzea egoera horiek detektatuko dituztenak izateko eta beraiek balio gabetzeko egoera horiek. Gako hori bereziki garrantzitsua da egoera hori paira dezakeen ikaslearentzat nahiz gainerako ikasleen garapen moralerako.
- **Erasoa pairatu duen pertsona ulertua eta babestua sentituko dela bermatzea eta pairatutako kaltea konpontzea.** Horretarako garrantzitsua da gai hori adoptatutako ikasleekiko gunen indibidualen berezko edukia izatea. Garrantzitsua da adoptatutako pertsonak sentitzea bere tutoreak ulertzen duela eta onartzen duela, horrek lagunduko baitio eskola-testuingurua fidagarria dela orokortzen.
- **Egoera horretan bizi diren pertsonen erantzuteko estrategia egokiak eskaintzea.** Batzuetan, ikasle horiek erasoaren aurrean etsia hartuta erantzun dezakete, litekeena da ez erantzutea edo erantzutea gatazka saihesteko, eta horrek, azkenean, eragina dauka ikasleen autoestimuan. Horrek ezintasun- eta babesgabetasun-sentimenduak eragin ditzake. Horregatik, ezinbestekoa da erantzuteko jarraibide entrenatuak, gatazkak saihestea ahalbidetuko diotenak, izatea, baina aldi berean defendatzen jakin behar dute eta gatazka-egoeren aurrean jarrera egokien bilduma bat izan behar dute gatazka eta babesgabetasuna saihesteko.
- **Konpetentzia soziala gara dadin lan egitea.** Konpetentzia soziala hezkuntza-etapa guztietan landu behar da, Haur Hezkuntzan hasita eta arreta berezia eskainiz Bigarren Hezkuntzan. Gune indibidual horietan ez ezik, taldeko guneetan eta testuinguru formaletan eta ez-formaletan ere lan eginez. Oinarrizko gizarte-trebetasunek jokabide bilduma batzuk eskaintzen dituzte eta bilduma horiek erraz txerta ditzakete zailtasunak dituzten adingabeek eta, gainera, erantzun prosozialak eta funtzionalak eskaintzen dizkiete. Lan honetarako teknikak eta baliabideak biltzen dituzten eskuliburu asko daude adibide gisa aipatzen dutenak entzuteko, elkarrizketa bati hasiera emateko, elkarrizketa bat edukitzeko, galdera bat egiteko, eskerrak emateko, nork bere burua aurkezteko eta abarretako gaitasunak entrenatzeak eragin positiboa duela zailtasun handienak dituzten pertsonen autoestimuan eta gatazkaren aurrean gaitasunak indartzen laguntzen duela.
- **Ikasgelan material didaktiko kulturaliztuna erabiltzea**² ikasleak mundu kulturaliztun batean bizi eta elkarrekin bizi daitezen hezteko

² <http://adoptivanet.info/encasa/ludoteca-material-didactico.php>

- jokoaren bitartez, hainbat material erabiliz, adibidez:
 1. “Haragi-kolorearen” tonu desberdinetako arkatzak, ikatz-ziriak, margoak, argizariak eta errotuladoreak.
 2. Kultura anitzeko eta askotariko giza irudi desberdinak, egurrezkoak. Ikasleek ezaugarri fisiko desberdinetako, etnia eta arraza desberdinetako eta/edo desgaitasunak dituzten pertsonak irudikatzen dituzten panpinak eduki ditzakete eskura jolasteko.
 3. Kontinenteen eta herrialdeen aniztasuna lantzeko, lurbira-globoaren eta mapen puzzleak erabil daitezke, baita kontinenteei buruzko mahai-jokoak ere.
 4. Munduko musika desberdinak, abestiak, sehaska-kantak...
 5. Munduko ipuin tradizionalak.

3.3.4. Tratu onak, harremanak eta trebetasun sozialak

Adoptatutako pertsonen harremana eta pertsona horiek bullygnarekin edo jazarpenarekin duten harremana askotarikoa da. Oro har, adoptatutako neska-mutil gehienek Bigarren Hezkuntzan ez dute horri buruzko zailtasun aipagarriak izaten; nolana ere, badago jazarpen-egoeretan biktima edo erasotzaile gisa parte hartu duten neska-mutilen ehuneko bat.

Nerabe batzuek zailtasunak izaten dituzte lagun talde bat edukitzeko eta lagun talde horri eusteko, harremanak izateko trebetasunik ez dutelako nerabezaroaren berezko gaiak gobernatzeko eta gai horiei behar bezala erantzuteko.

Definitutako protokoloak dauden arren, funtsezkoa da konpetentzia soziala zeharka lantzea curriculumarekin batera, modu jarraian ikasgelako metodologian eta tutoretzetako guneetan.

GIZARTE-TREBETASUN MOTAK

Diskriminazioari eta nortasunari buruzko oinarriko gizarte-trebetasunak.

Besteak beste, honako hauek biltzen dituzten gizarte-trebetasun aurreratuak: laguntza eskatzeko, parte hartzeko, barkamena eskatzeko eta besteak konbentzitzeko gaitasunak garatzea.

Sentimenduekin lotutako trebetasunak. Trebetasun horien artean norberaren sentimenduak ezagutzeko, sentimendu horiek adierazteko, besteen sentimenduak ulertzeko, beste pertsona baten haserreari aurre egiteko, afektua adierazteko, beldurra gainditzeko eta abar lortzeko gaitasuna dago, besteak beste.

Erasoa ez diren beste trebetasun batzuk, hala nola baimena eskatzea, partekatzea, laguntzea, negoziatzea, norberaren eskubideak defendatzea, txantxei erantzutea, borroketan ez sartzea, eta abar.

Estresari aurre egiteko trebetasunak: kexa bat adieraztea eta kexa horri erantzutea, kiroltasuna erakustea, bazterten dutenean moldatzea, mezu kontrajarriari aurre egitea, salaketa bati erantzutea, elkarrizketa zail baterako prestatzea eta taldearen presioei aurre egitea.

Plangintza-trebetasunak: arazo baten arrazoia zein den bereiztea, helburu bat ezartzea, informazioa biltzea, arazoak garrantziaren arabera konpontzea, erabaki bat hartzea edo zeregin batean kontzentratzea.

Gizarte-trebetasun horiek guztiak estrategia egoki eta funtzionalak dira ikasleen konpetentzia soziala garatzeko taldean nahiz bakarka. Trebetasun horien garapenak beste alderdi batzuetara egokitu behar du: esate baterako:

1. Ikastetxeko giza harremani buruzko orientabidea eman behar da. Talde batzuk modu ez-formalean sortu arren eta oso funtzionalak izan arren, neska-mutil askok dituzten zailtasunak direla medio ezinbestekoa da aztertzea komenigarria ote den gai horiek ikasgelan espezifikoki eta indibidualki lantzea. Neska-mutil askok Lehen Hezkuntzan nekez eusten diote laguntza taldeari ikasgelan; horregatik, lagundu egin behar zaie lagunak egiten ikas dezaten eta jolastokiko lagunei eusten eta jolasten irakatsi behar zaie, eta abar. Gai hori garrantzitsuagoa da Bigarren Hezkuntzan. Etapa horretan harreman-helburuak dituen lankidetzak sustatu behar da; horrez gain, espezifikoki landu behar da sor daitezkeen gatazka-erasoak modu autonomoan edo dagokion irakaslearekin konpontzeko modua.
 2. Sortutako kaltea konpontzeko ardura hartu behar da. Komenigarria da Bigarren Hezkuntzan gatazkak behin eta berriz ez sortzeko, beste pertsona bati zuzenean edo zeharka eragindako kaltea konpontzeko moduak egituratzea. Estrategia horrek ahalbidetzen du kaltea sortu duen pertsona beste pertsonaren ikuspegian jarri ahal izatea modu praktikoan eta aktiboan. Konponketa mota horrek irakasleen bitartekotza eskatzen du. Ikasteko giro egoki bat bermatzeko, estrategia horiek modu intentsiboan landu behar dira krisialdian.
 3. Gizarteak etiketatzea eta kalteberatasuna areagotu dadin prebenitzea. Ezinbestekoa da ikasle kalteberak babesteko planak egituratzea ikasle guztiak inplikatur.
 4. Gainerako ikasleek egoera horiek prebenitzen esku har dezaten sustatzea. Uste dugu Bigarren Hezkuntzan hitza eman behar zaiela gatazka horiek direla medio nolabait eraginpean hartuta dauden gainerako ikasleei.
- Horregatik, tutoretzaren zeregina funtsezkoa da gai hori lantzeko, kalte gehien jasotzen duten pertsonengan enpatia sortzen duten nahiz gatazkak gauzatzen dituzten pertsonen emozio-premiak ulertzen lagunduko duten ekintzak sustatuz. Emozio-premiak orekatzeak arindu egiten du pertsona kalteberenak etiketatzea arriskua. Gainerako ikasleak inplika daitezten lortzeko, bereziki taldeak berak pertsona kalteberena egoera horietatik babes dezan, sentsibilizazio-lana egin behar da eta egoera horiek agerian jartzeko bideak ezarri behar dira, jarrera etikoa hartu behar da eta laguntza eskatu behar da irakasleen esku-hartzea ezinbestekoa dela ikusten bada.
5. Babes-planak egituratzea babesgabetasun-egoeren aurrean. Plan horiek idatziz jasotako ondorio operatibo bat izan beharko lukete, eta ondorio hori, gainera, erantzun zehatz eta hurbilak definitzea ahalbidetzen duten tutoretzaguneetan landuko da, sufrimendua sortzen duten gatazka- eta babesgabetasun-harremanak sortzen edo behin eta berriz izaten direnean prebenitzeko.
 6. Taldean txertatuko direla bermatzea eta besteez fida daitezten laguntzea. Beren ikaskideekiko harremana bultzatzea, taldean sartzeko tresnak emanez, eta, aldi berean, ikasgela taldearekin lan egitea, harremanak bi noranzkokoak direlako beti. Bestalde, helduak bitartekari gisa egingo duen lana elkarrekintza positiboko formak eta estiloak ematea eta moldatzea izango da.
 7. Enpatia garatzea. Norberaren sentimenduak ezagutzen eta besteen sentimenduak identifikatzen laguntzea.
 8. Pazientzia eta harmena erakustea. Presek eragin dezakete behar ez den bezala jardutea. Ikasleei denbora ematea beren burua kokatzeko, egokitze eta beren ikasketa-prozesuan iniziatiba hartzeko.

3.4. Ikaskuntzako premia espezifikoei erantzutea

3.4.1. Sarrera

Dokumentuan zehar esan dugunaren arabera, adoptatutako adingabeak beste ezer baino lehen haurrak eta gazteak dira, eta adoptatutako haurren artean adopzio-prozesurik izan ez duten eskolako beste haur batzuen artean egon daitekeen adinako aniztasuna dago. Horregatik, ezinbestekoa da okerreko orokortzeak edo egozteak saihestea eta haur horien artean dagoen heterogeneotasunaren eta aldakortasunaren jakitun izatea.

Beraz, ikasle jakin batzuk dira eta ez adoptatutako haur guztiak hezkuntza-erloko laguntzaren premia espezifikoak eduki ditzaketanak.

3.4.2. Hezkuntza-premiak

Ikasle horiek dauzkaten premien aniztasuna lotuta egon daiteke honako alderdi hauekin, adibidez: **hizkuntza ulertzea eta erabiltzea, kontzeptu abstraktuak ulertzea, eskolako lanetan kontzentratzea, zeregin bera gauzatzen denbora luzez egotea eragozten dien kezka handi bat edo ikaskuntzaren autoerregulazioa**. Premia horiek, batzuetan, ikasketa-errendimendua txikia izatea eragiten dute, eta hori gertatzen denean eskola-porrota izateko arrisku handiagoa dute.

Hizkuntzari dagokionez, ikasle horien abiapuntua era askotakoa da. Kasu batzuetan, haurrek oraindik ez dute hitz egiten. Beste batzuek bereganatu dute hizkuntza-egitura bat eta hizkuntza berri bat ikasten hasi behar dute; EAEren kasuan, bi hizkuntza ofizialak ikasi behar dituzte.

18 hilabetetik gorako haur gehienak nazioarteko adopzioetik datoz eta hizkuntza berri bat ikasi behar dute adopziozko herrialdera iristen direnean. Ildo horretan, HWA-Froelich-ek³ adierazten digu **ama-hizkuntza bereganatzeko garaian bat-bateko etena dagoela eta horrek kognizioan eta ikaskuntzan eragin dezakeela**. Eta, batzuetan, ondoren aipatuko diren alderdiekin lotutako hezkuntza-premiak sor daitezke. Alderdiak honako hauek dira:

- Kontzeptu abstraktuak eta egitura gramatikal konplexuak ulertzea.
- Kode idatzia bereganatzea.
- Komunikazio-trebetasunak.
- Adierazpen-hizkuntza. Ahozko adierazpen-etorria: hitz-jario automatikoa, ahoskera, prozesamendu sintaktikoa, lexikoa eskuratzeko eta diskurtsoa egituratzeko arintasuna.
- Ekintza eta jokaera planifikatzea eta antolatzea barne-hizkuntzaren bitartez.

3 HWA-FROELICH, D. A. (2009). "Communication Development in Infants and Toddlers Adopted From Abroad". Topics in Language Disorders.

- Irakurrizko ulermena. Hizkuntza idatzia testuingurutik kanpo interpretatzea, zentzu inferentziala eta zentzu bikoitza harrapatzea. Testuetako informazioa aurretiko ezagutzekin lotzea eta istorio baten ideia nagusiak harrapatzea. Hiztegi akademikoa ulertzea eta esanahien ñabardura sotilak ezagutzea.

Beste premia mota batzuk arreta hautakorra, ardaztua eta jarraitua garatzearekin lotuta daude. Horrek kontrol bat egitea eskatzen du arreta egoera baten alderdi garrantzitsuetarantz bideratzeko eta garrantzitsua ez dena galarazteko. Horrela, zereginak gauzatzeko ekintzak planifikatzeko eta ekintza horiei aurrea hartzeko gaitasunak garatzen dira.

Autoerregulazioarekin eta autonomiarekin lotutako alderdiak ere ikasle horiek izan ditzaketen premiak dira; horregatik, portaera erregulatzea, autogidatzea eta abar ahalbidetuko dieten gaitasunak garatu behar dituzte.

3.4.3. Neurri orokorrak

Adoptatutako neska-mutilen eskola-premia gehienak irakasleek landu ditzakete ohiko neurriekin; nolana ere, neska-mutil horiek dituzten premia komunei eta desberdinei buruzko benetako ezagutza izan behar dute eta premia horiei nola erantzun behar dieten jakin behar dute.

Irakasleek ikasle horiek ezagutzeko lan sakona egin behar dute, gertatzen dena ulertzeko prestatu behar dute eta lehendabizi hurbileko estrategia normalizatuak sustatu behar dituzte erantzuteko, eta beharrezkoa den egoeretan beste baliabide profesional batzuk sartzeko aukera aztertu beharko dute.



Baina garrantzitsua da azpimarratzea ikastetxeak ikaskuntzaren estrategia bideratzaileak –hezkuntza inklusiboaren gakoekin bat datozenak– ezartzen dituen neurrian, ikasleentzako neurri espezifikoak aplikatzeko premia murriztu egingo dela.

Garrantzitsua da hezkuntza-erantzuna antolatzea Haur Hezkuntzan. Adin goiztiar horietan garunak duen plastikotasunari esker, garunaren funtzionamendua berrantola daiteke.

Ikastetxeak alderdi metodologikoak aukeratzeak garrantzi handiko ondorioak dakartza hezkuntza-praktikarako. Ikasten lagunduko duten eta aniztasuna errespetatuko duten estrategiak eta ikuspegi

metodologikoak ezartzen badira, ondoren ez dira ikasleak diskriminatzen eta estigmatizatzen dituzten neurriak hartu beharko.

Erabili behar diren metodologiak eta hezkuntza-estrategiek bat etorri beharko dute eskola inklusiboaren printzipio eta helburuekin: proiektu bidezko lana, curriculum-aberastasuna, literaturari eta elkarrizketa-curriculumei buruzko solasaldiak, IKTen erabilera, tutoretza pertsonalizatuak berdinen artean, lankidetzan ikastea, talde interaktiboak, bi irakasle ikasgelan eta abar.

Metodologiaren barruan ikasleen partaidetza aktiboa, ikaskuntzaren eraikitze soziala eta ikasle guztien arrakasta akademikoa sustatuko duten estrategiak sartuko dira, ikasteko gaitasun, interes, erritmo eta estilo aniztasunari erantzuteko.

3.4.4. Neurri espezifikoak

Arestian adierazi denez, kasu batzuek zailtasun emozionalak, konduktualak edo ikasteko zailtasunak eduki ditzakete. Zailtasun horietako batzuk arintzen joan daitezke denborarekin edota desagertu daitezke. Baina beste zailtasun batzuek eskolatze-prozesu osoan iraungo dute, eta, kasu horietan esan dezakegu hezkuntza-premia bereziak edo espezifikoak dituztela. Horregatik, detektatutako premietara egokitutako erantzun espezifikoa beharko dute.

Neurri horiek aplikatzeko arrazoi bakarra neurri horiek justifikatzen dituzten premiak detektatzea izango da, inoiz ez adoptatuak izatea.

Hezkuntza Laguntzako Premia Bereziak dituzten ikasleentzat aintzat hartzen diren neurrien artean, aniztasunari erantzutea arautzen duen indarreko araudiari lotuta daudenak, honako hauek dira:

1 Urte bat gehiago jarraitzea Haur Hezkuntzan

Egindako ebaluazioak hori egitea gomendatzen badu, ikastetxeko Zuzendaritzak eskatu ahal izango du ikasle batek beste urte batez jarraitzea Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, eta, horrenbestez, urtebete geroago hastea Lehen Hezkuntzan.

Ezinbestekoa da 1998ko uztaileko AGINDUAREN 4. artikulua –ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak– ezartzen duen prozedurari jarraitzea.

2 Hezkuntza- arलो Premia Bereziak dituzten ikasleek Lehen Hezkuntzan jarraitzea

Egindako ebaluazioaren arabera, malgutu ahal izango da Hezkuntza-arलो Premia Bereziak (HPM) dituzten ikasleek Lehen Hezkuntzan jarraitzea gehienez bi urtez, eta bi urte horietan Haur Hezkuntzako eskolatzearan luzatutako urtea zenbatuko da, baldin eta luzatu bada.

Ezinbestekoa da 1998ko uztaileko AGINDUAREN 6. artikulua –ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak– ezartzen duen prozedurari jarraitzea.

3 Eskolatzeko aldia malgutzea/ bizkortzea

- Derrigorrezko eskolaldiaren hasiera aurreratzea.

Aukera hori proposatuko da ebaluazio psikopedagogikoan balioesten bada Haur Hezkuntzako ikasleak eskolatuta dagoen zikloko edo mailako helburuak lortu dituela, eta aurreikusten bada neurri hori egokia dela ikaslearen oreka pertsonalaren eta sozializazioaren garapenerako. Horrela ikasturtea aurreratzen da, ikaslearen adin kronologikoaren arabera Lehen Hezkuntzan hasteko legokiokeena.

- Garrantzitsua da erabaki hori familiarekin batera hartzea.
- Eskolatzeko aldia murriztea

Aukera hori proposatuko da ebaluazio psikopedagogikoan balioesten bada Haur Hezkuntzako ikasleak eskolatuta dagoen zikloko edo mailako helburuak lortu dituela, eta aurreikusten bada neurri hori egokia dela ikaslearen oreka pertsonalaren eta sozializazioaren garapenerako, eta ahalbidetuko da ziklo bat ikasturte bakar batean gaintzea.

Neurri hori (aurreratzea eta murriztea) oinarrizko irakaskuntzan nahiz derrigorrezko irakaskuntzen ondorengoetan (Batxilergoa murriztea) har daiteke. Nolanahi ere, horrekin batera arreta espezifikoko neurriak eta programak izan beharko dira.

Prozedura eta epeak ikasturte-hasierako ebazpenetan azaltzen dira.

4 Curriculumean txertatzeko egokitzapena

Hezkuntza-arलो Premia Bereziak dituzten ikasleek ikasi ahal izateko beharrezkoak diren eskuragarritasun-neurriak edo laguntza teknikoak eta pertsonalak emateko neurriak proposatzea da.

5 Banakako Curriculum
Globalaren
egokitzapena

Hainbat curriculum-arlotan oinarritzotzat eta funtsezkotzat hartzen diren helburu orokor eta eduki batzuk kentzen dira.

Helburu orokorrak eta ebaluazio-irizpideak nabarmen aldatzen dira.

Ez du aukerarik ematen Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko.

6 Arloko edo
Irakasgaiko
Curriculumaren
Norbanako
Egokitzapena

Arlo jakin batean edo batzuetan aldatu edo ordeztu egiten dira helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak.

Etapako helburu berberei eusten zaie.

Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulazioa lortzea ahalbidetzen du.

7 Zabaltzeko Banakako
Curriculumaren
Egokitzapena

Egokitzapen hori gauzatzen da ebaluazio psikopedagogikoan balioesten denean ikasleak errendimendu bikaina duela arlo kopuru jakin batean edo errendimendu global bikaina eta etengabea duela. Curriculumaren norbanako egokitzapen nabaritzat hartuko da.

Zabaltzeko egokitzapenek honako hauek bildu behar dituzte:


- Helburuak eta edukiak zabaltzea
- Ebaluazio-irizpideak
- Egokitze metodologikoak eta antolamenduzkoak

Estrategia metodologiko eta antolamenduzko estrategia gisa erraztu daiteke ikasle horiei adinarengatik dagokien maila baino goragoko mailako taldeetan sartzea. Horrek guztiak curriculuma zabaltzeko egokitzapenean azaltzen diren edukiak lantzen ari diren ikasleekiko interakzio soziala erraztuko du.

3.4.5. Jardun-protokoloa: premiak detektatzen direnetik esku hartu arte

Adoptatutako ikasleek noizbait hezkuntza-premia espezifikoak izan ditzaketela ez jakitea bezain hutsegite handia da ikasteko edozein zailtasun adopzioari leporatzea. Hortaz, ikasle guztiekin egiten den bezalaxe, ikasle horiek garapen integrala lortzeko eta gaitasunak garatzeko dituzten hezkuntza-premiak identifikatu behar ditugu.

2 Irudia. Hezkuntza-premiak identifikatzearen helburuak



Jarraian, hezkuntza-premiak identifikatzea eta, azken batean, ikasle horiek parte hartzea eta ikastera bultzatzeko beharko litzaketen neurri eta baliabide espezifikoak zehaztea ahalbidetuko duen prozesua deskribatuko da. Prozesu hori Hezkuntza Sailak premia izan lezaketen ikasleentzat ezarri duena da.

Haur Hezkuntzan dagoen protokoloak⁴ 4 fase ditu:

I. fasea: Garapenaren Ohiko Zaintza

Hasierako fase hori prebentzio-orientabidea da. Haurren ikuskapen eta zaintza sistematikoan oinarritzen da, Haur Hezkuntzan “ohikoa ez den” garapenaren inguruko alerarik edo susmorik ez ezik, garapen goiztiarra ere badagoen balioesteko. Ikasle guztiekin egiten da.

II. fasea: Detekzio Espezifikoa

Fase horretan, garapena zaindu bitartean detektatu diren zailtasun eta premia espezifikoak buruzko deskribapen zorrotzagoa egiten da.

Fase horren helburua pertsonaren garapen globalean nahiz zaitasunak ikusi diren arlo edo alderdietan detekzio finagoa eta zorrotzagoa egitea da, baita garapen goiztiarraren edo gaitasun intelektual handien detekzioa egitea ere.

III. fasea: Balorazio psikopedagogikoa

Bigarren fasea ezarri ondoren, ikasle horrekin hezkuntza-prozesuan esku hartzen ari diren ikastetxeko hezkuntza-eragileekin batera, HPBko aholkularitzak zehaztu beharko du balorazio psikopedagogikoa egin behar den, eta, egin behar bada, familiaren edo legezko ordezkarien baimen sinatua beharko da aurretik. Egun indarrean dagoen prozedurari jarraituko zaio.

IV. fasea: Esku hartzeko eta jarraipena egiteko fasea

Neurriak proposatu eta jardunen jarraipena egin ondoren, ikasleentzako Jardun Planean jasoko da guztia.

Lehen eta Bigarren Etapetan jarraitu behar den prozesua antzekoa da, premiak detektatzetik hasita balorazio psikopedagogikoraino.

Haur hauei, **ikastetxera zein etxera heltzean, hasierako balorazio bat egitea garrantzitsua da zehaztasunez zein hezkuntza-premia espezifikoak izan ditzaketen jakiteko**. Horrela, ahalik eta azkarren Jarduera Plan Pertsonalizatua egingo litzateke eta bertan zehaztuko lirateke hezkuntza-erantzuna eta horren antolaketa.

⁴ Arreta goiztiarra EAEn. <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-inklusib/es/>

Balorazio psikopedagogikoaren prozesuak multidimentsionala, kuantitatiboa, kualitatiboa eta testuinguruan kokatua izan behar du.

Ikasleen premia espezifikoak zehazteko eta ikasleei behar bezala erantzuteko eta ikasleen hezkuntza-arreta hobetzeko behar diren neurriak eta baliabideak proposatzeko helburua du.

Ezinbestekoa da familiak parte hartzea. Are gehiago, ikasleen hezkuntzan parte hartzen duten eragile guztiek erantzukizun bat daukate beren profiletik, eta, beraz, garapenaren ohiko zaintza egiteko prozesuaz eta premiak detektatu eta balioesteaz arduratu beharko dute. Hezkuntza-prozesuan inplikaturako eragile guztien laguntzarekin gauzatu beharko da esku-hartzea, salbuespenik gabe.

Hezkuntza-laguntza emateko premia espezifiko guztientzako jardun-protokolo komuna honako hau da:

1. Tutoreak "Ebaluazio-diagnostiko psikopedagogikoa egiteko Eskara" izeneko dokumentua beteko du (Hezkuntza Sailaren W67 aplikaziotik deskargatuko du) eta dokumentu horretan eskaeraren arrazoiak eta ikusitako ezaugarri nabarmenenak adieraziko ditu, baita ordura arte ikastetxean egindako jardunak eta intereseko beste ohar batzuk ere.
2. Dokumentu hori ikaslearen espedientean geratuko da eta HPBko aholkularitzak eskatu ahal izango du; horrez gain, gurasoek edo legezko ordezkariak sinatu beharko dute (esku-hartzearen legezko baimena).
3. Azkenik, aholkularitza psikopedagogikoaren eskabidera sartu behar da, Eskara hori on-line egingo da HPBko aplikazio honen bitartez.
4. Ebaluazio psikopedagogikoa elkarlanean gauzatu ondoren, informazioa itzuli egingo da. Informazioa honako hau izango da:
 - Ikastetxearentzako hitzezko eta/edo idatzizko orientabideak jasota uztea.
 - Balorazio psikopedagogikotik ateratako ondorioen berri ematea familiari, eta egokia bada orientabideak emanez.
 - Lortutako emaitzen eta egindako behaketen arabera egokitzen hartzen diren beste zerbitzu batzuetara bideratuko dira (lehen mailako arretako osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, AGBL, eta abar)

3.4.6. Familiaren rola prozesuak irauten duen bitartean

Familiak funtsezko rola dauka bere seme-alaben garapenean; horregatik, ez litzateke ezer egin behar familiaren partaidetzarik gabe. Horrek eskatzen du familiak inplikatzera adopzioarekin lotutako egoeretan.

Familiaren eta hezkuntzaren inguruneak dira haurren bizitzako leku garrantzitsuenak. Ezinbestekoa da indarrak elkartzea, zalantzak partekatzea eta informazioa trukatzera. Familiek ez dute informazio-jasotzaile hutsak izan behar, baizik eta behaketan parte hartu behar dute eta konplize izan behar dute, premien balorazioan eta esku-hartzean parte hartu behar dute beren seme-alaben garapenari buruzko informazio oso baliotsua eman dezaketelako.

Parte-hartze hori ezinbestekoa da, alde batetik, jarraipen-fasean egindako behaketak kontrastatzeko, eta, bestetik, beharrezkoa izanez gero, irakasleek eta familiak elkarrekin gauzatuko dituzten jardun batzuk adosteko; jardun horiek ikusitako kezka-arrazoien aurrean esku hartzeko izango dira.

Bigarren fasera, hots, Detekzio Espezifikokoaren fasera igaroz gero, tutoreak, irakasle aholkularien laguntzarekin, adostuko du zer izango den Detekzio Espezifikoa. Familiak hitzezko informazioa emanez edo galde-sortak edo behaketa-eskalak betez lagundu dezake. Horrenbestez, ezinbestekoa da fase horretan familiak aktiboki parte hartzea.

Fase horren ondoren, litekeena da **Arreta Goiztiarreko Gizarte Esku-hartzearen Zerbitzura** eta/edo dagokion lehen mailako arretako osasun-zerbitzura (LAZ) bideratu behar izatea, baldin eta haurra 6 urtetik beherakoa bada. HPKko aholkularitzak balorazio psikopedagogikoa egitea gomendatzen badu, familiak idazki bidezko baimena eman behar du fase horri hasiera emateko. Fase horretan elkarlanean jardungo da, lortutako emaitzen berri emanez familiari, familiarekin itunduz eskolak eta familiak gauzatu behar dituzten zereginak.

3.5. Ohiko ikasgelan ematen den hezkuntza-erantzuna

Ikasgela ikasteko aukerak eman behar dituen gunea da, ikasle guztien ongizate emozionala bermatuz. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleen ahalmen guztiak garatzea ahalbidetuko duen segurtasun-giro bat sortzea; horrek guztiak eskatzen du tutoreak agerian jartzea adopzioa onartzen duela eta baldintzarik gabeko laguntza eta babesa ematea ikasle guztiei edozein diskriminazio-egoeraren aurrean.

Jarraian, ikasle horiek ikas dezaten errazteko gomendio orokor batzuk aipatuko dira:

IKASKETA ERRAZTEKO GOMENDIO OROKORRAK

1. Arlo edo irakasgai desberdinen banaketa eta ikasgelako metodologia berrikustea.
2. Ikasleen ikasteko estiloa kontuan izatea, azaltzeko, gauzatzeko, motibatzeko eta inplikatzeko modu egokiak emateko. Gauzak horrela, edukiak lantzearen, informazioa eskuratzearen eta adieraztearen aurrean, euskarriak eta moduak desberdinak izan daitezke; esate baterako, informazioa formatu malgu batean aurkez daiteke.
3. Ikasgelako metodologian baliabide bisualak sar daitezke: grafikoak, taulak, gidoiak, kolorea, animazioak, bideoak, argazkiak,...
4. Ikasgelako metodologian baliabide digitalak sar daitezke: ordenagailua, arbel digitala, liburu digitalak, classroom...
5. Mapa mentalk egitea informazioa antolatzeko eta gogoan hartzeko.
6. Autoinstrukzioak eta autoebaluazioa erabiltzea zereginak planifikatzeko: Zer egin behar dut? Nola egin behar dut? Ondo egiten ari al naiz? Ba al dago aldatu behar den zerbaitez?
7. Entrenamendua lantzea arreta eta kontzentrazioa areagotzeko zereginetan edo jardueretan. Ardaztea, adibidez: orain honetan bakarrik pentsatuko dut.
8. Ikasleei estrategiak irakastea erlaxatzen ikasteko, beren gorputza eta emozioak ezagutzen eta kontrolatzen ikasteko gidatutako jarraibideen bitartez (“mindfulness” eta abar)
9. Egikaritze-funtzioa garatzen lagunduko duten joko hezigarriak dauden txokoa: puzzleak, Memory, Tangram, Pictionary...
10. Zereginak denbora laburretan dosifikatzea, horrek autonomia emango du eta ikasleek ez dute antsietaterik izango eta ez dute uste izango zeregina gehiegizkoa dela daukaten gaitasunerako.
11. Zereginak ulertzen laguntzea eta ziurtatu ulertu dituztela, batez ere ebaluazio-egoeren aurrean.
12. Eskola-agenda erabiltzea. Agendaren erabilera sustatzea ikasleei beren zereginak egunean eramaten laguntzeko, baita familiarekin komunikatzeko bide gisa erabiltzeko ere. Ezinbestekoa da irakasleen eta familien ikuskeraketa ikasleek agenda erabiltzen ikasteko. Egun bakoitzean denbora-tarte bat eskaini ahal zaio agenda modu eraginkorrean erabiltzen ikasteko.
13. Etxerako bidaltzen diren zereginak neurtzea, birpasatzeko balioko duten zereginak, atseginak, lan horiek modu autonomoan ere egin ditzakeela berresten lagunduko diotenak.
14. Ikasteko moduak dibertsifikatzea, sormenetik hasita irudimeneraino.
15. Umorez eta gozatzuz ikastea. Ahaleginean oinarritutako ikaskuntza bultzatzea, baina ikuspegi ludikotik, jolasa eta umore-sena erabiliz. Modu horretan lan egiten bada, giro erlaxatua, adiskidetsua eta tentsioak murrizten dituen lortzen da.

3.5.1. Ikasgelan egiten diren jarduerak eta zereginak

Ezinbestekoa da eskola-ingurunean egiten diren jarduerak eta zereginak berrikustea. Lehen ere aipatu dugu ezinbestekoa dela familiaren ikuspegia zabaltzea askotariko egitura gisa.

Beraz, ikasgelan ikasleei irakatsi behar zaie familian bizitzeko modu desberdinak eta familia-egitura desberdinak daudela, eta guzti-guztiak direla errespetagarriak eta baliodunak. Horrela, edozein diskriminazio mota arbuiatuko duen gizarte bidezkoagoa eta toleratzaileagoa eraikitzen laguntzen da.

Ikasleei adierazten bazaie familiako zorientasuna eta maitasuna ez daudela familia motan edo familiak duen osaeran, lortuko da ikaskideak ulertzea eta errespetatzea, okerreko diskriminazio-egoerarik ez izatea “ohiko familia” motako familiako kide ez izateagatik.

Horri dagokionez, Ana Franciak⁵ adierazten du nola *Tratatu behar den familia-aniztasuna ikasgelan*.

“Hainbat familia mota daude:

- Elkarren antza duten pertsoez osatutako familiak.
- Elkarren antzik ez duten pertsoez osatutako familiak.
- Kide guztiak elkarrekin bizi diren familiak.
- Kideak bananduta bizi diren familiak.
- 2, 3, 4 edo 5 pertsoez osatutako familiak.

Baina familia guztiek zerbait komunean dute:

- Afektua.
- Zaintza.
- Arauak.

Pertsona batzuek erabaki zuten guraso bakarreko familia bat osatzea beren seme-alabak maitatzeko eta zaintzeko.

- Horregatik, bi pertsoez osatutako familiak daude.

Beste batzuek erabaki zuten elkarrekin zaintzea beren seme-alabak.

- Horregatik, 3, 4 edo 5 pertsoez osatutako familiak daude.

Batzuk aitona-amonekin bizi dira, beste batzuk ez, ordea.

⁵ Francia, A. (2013). *La niña y el niño adoptados en el aula. Factores que influyen en la inclusión escolar*. Hilo rojo.

Baina familia guztiek zerbait komunean dute:

- Maitasuna.
- Zaintza.
- Arauak.

Komenigarria da ikasgelan lantzen diren testuek familia-eredu desberdinak azaltzea”

Era berean, ezinbestekoa da aldaketak egitea zuhaitz genealogikoari, familia biologikoei eta abarri buruzko jardueretan. Gerta liteke jarduera mota horien ondorioz, adoptatutako ikasleak lekuz kanpo geratzea edo larri sentitzea eskatzen den familia-historia estandar hori ez edukitzeagatik.

Zeregin horiek aldatzeak lagunduko du ikasle guztiek parte hartzea inor baztertu gabe, eta hori erraz egin daiteke. Esate baterako “zuhaitz genealogikoa” jarri ordez “nire familia” jartzea, “jaio nintzeneko argazkia” jarri ordez “txikia nintzeneko argazkiak” jartzea, “aitaren edo amaren eguna” jarri ordez “familiaren eguna” jartzea...

Irakasleek ikasgelako jarraibide orokorrak erabili ahal izango dituzte banako egoerak lantzeko, esate baterako ikasleek hobeto funtziona dezaten lagunduko duten antolamenduzko alderdiak eta estrategia edo teknika espezifikoak:

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan egokia izan daiteke familia mota desberdinak eta adopzio-egoerak islatzen dituzten ipuinak edo liburuak irakurtzea edo istorioak kontatzea. Hasierako etapa horietan ikasleen harmena oso handia da. Horregatik, hezitzaileak erne egon beharko du eskola-inklusioren prozesua egokia izateko, eta ziurtatuko du ez dela adoptatutako ikasleekiko erreakzio negatiborik sortzen; irakasleen eredia eta irakasleak argi eta garbi adieraztea egoera hori onartzen duela erabakigarriak dira adin hauetan.

Bigarren Hezkuntzako etapan komenigarria da curriculumean hainbat alderdi sartzea, hala nola desberdintasunaren balioa, beste kultura batzuekiko errespetua, geografiatik, historiatik, musikatik eta abarretatik eskuratutako ezagutzak...

3.5.2. Nola hitz egin behar da adopzioari buruz modu inklusiboan ikasgelan?

Familiari dagokio adopzioari buruzko xehetasunak edo ezaugarriak ematea, eta eskolari dagokio familitatik jasotzen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordetzea. Nolanahi ere, irakasleek prestatuta egon behar dute ikasgelan normaltasunez hitz egiteko adopzioari buruz, eta onartu behar dute seme-alabak hainbat modutan eduki daitezkeela, errespetua eta onarpena helarazi behar dute era askotako familia-egoeren aurrean hitzezko eta ez-hitzezko hizkuntzaren bitartez.

Prestatuta egon behar dute ikaskideek egin ditzaketan galderari erantzuteko; horretarako, gutxienez adopzioaren hizkuntza positiboa ezagutu behar da. Gai horiek lantzen diren eta gai horiei erantzuten zaien moduaren arabera, erreakzio

desberdinak eragingo dira: lotsa, mesfidantza, edo, aitzitik, onarpena eta segurtasuna.

Adopzioa ez da sekretu bat, zerbait naturala eta erreala da, eta normaltasunez onartzen bada, ez du diskriminaziorik sortu behar. Horregatik, ikasleak berak edo helduek esandako negatibotasunez betetako hitzen aurrean, hezitzaileak prestatuta egon behar du hezibide onez erantzuteko.

Adopzioa gehiegi aipatzea ere ez da egokia. Adopzioa ulertzeak berekin dakar normalizatzea, adopzioari buruz ikasgelan hitz egitea ikuspegi bikoitz batetik: curriculumeko eduki gisa, ikasleen mailara egokitutako eskola-maila desberdinetan familian bizitzeko dauden modu desberdinak daudela ulertzeko, edota, ikasleak ikasgelan hasten direnean edo gaia sortzen den edozein unetan.

Batzuetan konnotazio negatiboak dituzten termino okerrak erabiltzen dira. Ikasgelan ikasle guztien aurrean erabiltzen diren hitzek eta hizkuntzak zuzena eta zehatza izan behar du, jatorria edo bizi-historia dela medio inor diskriminatzen ez duen terminologia inklusiboa erabili behar da.

Hurrengo koadroan adopzioari⁶ buruz hitz egiten dugunean erabili behar dugun terminologia egokia azaltzen da:

Nola hitz egin adopzioari buruz ikasgelan


| Ahal bada, ez erabili esamolde hau | Hobeto hau | Zergatik? |
|--|---|---|
| Benetako aita/ama | Jaiotzetiko aita/ama, aita/ama biologikoa | Ba al dago "irudizko" gurasorik? Adopziozko gurasoak guraso biologikoak bezain errealak dira. |
| Aita/ama naturala | Aita/ama biologikoa; erditu zen emakumea | Odoleko loturarik ez izateak ez du esan nahi adopziozko gurasoak ez direla beste gurasoak "bezain guraso" |
| Seme edo alaba naturala. | Jaiotzetiko semea edo alaba / seme edo alaba biologikoa | Ba al dago seme-alaba artifizialik? |
| Norberaren semea edo alaba (adoptatutako haur baten aurrean) | Jaiotzetiko semea edo alaba, seme edo alaba biologikoa | Seme-alaba guztiak norberarenak dira, adoptatuak izan ala ez. |
| Seme edo alaba ez-legitimoa | Hobe da hitz hori kentzea eta honako hau soilik erabiltzea: semea edo alaba | Haurraren jaiotzaren legezko zirkunstantziek ez lukete haurra estigmatizatu behar |
| Ama ezkongabea | Jaiotzetiko ama / ama biologikoa | Ama ezkongabeak judizio moral bat dakar berekin. |
| Abandonatu egin zintuzten, utzi egin zintuzten, uko egin zioten zurekin geratzeari | Adopzioan ematea, familia bat bilatu zuten zu hazteko | Ama biologikoek maite dituzte beren seme-alabak, baina erabakitzen dute seme-alaba horientzat hobe dela adopzioan ematea, seme-alaba horiek maitatuak eta zainduak izateko familia bat bilatzea erabakitzen dute. |
| Adopzioa atzerrian | Nazioarteko adopzioa, herrialdeen artean | "Atzerritar" hitzak konnotazio negatiboak izan ditzake |
| Nekez egoki daitekeen haurra | Ezaugarri eta premia bereziak dituen haurra | Ez da hain kaltegarria haurraren autoestimurako |
| Adoptatua da | Adoptatu egin zuten | Une jakin batean adoptatu zuten, orain familia bateko kide da |

⁶ Robin Hillborn Family Helper aldizkariko editorearen Adoption Helper teachers Guide to Adoption de: "From Family Helper, www.familyhelper.net"
BNk itzulia eta egokitua (2017)

3.6. Hezkuntza-erantzuna eskola-testuinguruan

Haurren zaintza eta babesa ez dagozkio familiari soilik. Adingabea bizi den gainerako eremuek zuzenean eragiten dute adingabearen garapenean. Ikastetxeak, zentzu horretan, emozioen garapen positiboa eta segurua faboratzen duten hezkuntza-esperientziak eskaini behar dizkio haurrari.

3 Irudia. Nola hitz egin adopzioari buruz ikasgelan



ESKOLAK HONAKO ALDERDI HAUEK BERMATUKO DITUEN INGURUNE BAT EMAN BEHAR DU:

- Eskola-giro goxoa, estereotipoetatik eta okerreko sinesteetatik urrun dagoena, jatorria, arraza eta abar direla medio izandako diskriminazio-jokabideak desagerrarazi ahal izateko.
- Ikasle horiek onartuko dituen giro goxo bat, ikasleek beren burua onartua sentituko duten giro bat, aniztasuna aberastasuntzat hartuta.
- Ikasle guztiak babesteko leku bat, baina batez ere arrisku-egoeran egon diren ikasleak babesteko leku bat.
- Ikasle horiek dituzten premiei laguntzeko leku bat, ikaskuntza akademikotik haratago doana.
- Errespetuko leku bat, gizartea gero eta heterogeneoagoa delako: kultura-aniztasuna, sinesmenen, ohituren eta bizitzeko eren aniztasuna. Hori guztia errespetuz hartu behar da ikastetxean. Ezinbestekoa da aniztasunean eta aniztasunetik hezteak.
- Irakasleek beren hezkuntza-lanean lehentasuna eman beharko diote emozioen segurtasuneko afektibitate-lotura positiboak eta lagungarriak eraikitzeari eta ikasketetan arrakasta izateko itxaropenei, eta itxaropen eta lotura horiek lagunduko dute ikasle bakoitzari buruzko balorazio sozial eta pertsonal positiboa egiten beti.

Azken batean, eskolak lan egin beharko du eskola-komunitate abegitsua, elkarlanekoa eta pozgarria eraikitzeko, eta komunitate horretan ikasle guztiek sentituko dute baloratzen dituztela beren ezaugarri pertsonalak eta/edo beren bizitzako historia edozein izanda ere.

3.6.1. Ikastetxeko planak eta proiektuak

Aipatutako alderdiak lortzeko ez ezik, ikasle horiei arreta egokia ematea zailtzen duten oztopoak kentzeko ere, ikastetxeak hezkuntza-jarduna antolatzen duten planak eta proiektuak ditu, eta plan eta proiektu horietan aniztasunari erantzuteko hartu behar diren neurriak eta planteamendua biltzen dute. Tresna horiek ikastetxeari lagunduko diote eskolako bizitzako alderdi erabakitzaileei buruzko erabakiak hartzen.

Honako hauek dira, besteak beste, antolaketa- eta metodologia-alderdiak, orokorrak eta espezifikoak:

- Ikasle horiei eskolak ematen dizkieten irakasle guztiak koordinatzeko behar diren bideak ezartzea metodologia-jarraibideak, ebaluazio-irizpideak eta/edo ikasgelako elkarbizitza eta harrera hobetzeko behar diren beste alderdi espezifikoago batzuk elkartzeko.

- Informazioa trukatu dela bermatzeko irizpideak, behar den konfidentzialtasuna gordez, maila batetik bestera igarotzean, hezkuntza-etapa batetik bestera igarotzean edo ikastetxez aldatzean, ezarritako jarraibideekin jarraituko dela bermatzeko.
- Familiaren eta eskolaren arteko elkarlaneko lana ez ezik, beste erakunde batzuekin sarean egindako lana ere bultzatzeko erabakiak.

3.6.1.1. Tutoretza



Tutoretza eta ikasleak ikastetxean hartzea oso garrantzitsua da adoptatutako ikasleen kasuan; horregatik, ikastetxeak adostu eta arautu egin beharko ditu neurri horiek

Tutoretza Plana (TP)⁷ ikasle guztiei beren eskolatzealdian bideratutako orientabide- eta jarraipen-ekintza multzoa antolatzeko egitura da, oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko.

Tutoretza Planaren helburua etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa bermatzea da, ikasleak bere burua ezagutzeko eta onartzeko, bere sozializazio-prozesua hobetzeko, erabakiak hartzen ikasteko, ikasteko dituen arazoak konpontzeko, eta bere proiektu pertsonal, profesional eta sozialaren jabe izateko.

Eskolatzealdi osoan laguntzeko prozesu hori mesedegarria da edozein motatako ikaslerentzat, baina adoptatutako ikasleen kasuan funtsezko elementua da izan ditzaketen zailtasun eta desabantaileri aurre egin ahal izateko.

Tutoretzen bitartez, espazio bat eman ahal zaie afektibitate-loturak ezartzeko, segurtasuna emateko eta erreferentziazko figura egonkor bat ahalbidetzeko. Tutorearekiko harremanak gune bat eskain dezake ikasleek beren egoera zailak partekatu ahal izateko, batzuetan entzuten dituzten komentario desegokiak lantzeko edo beraientzat negatiboak diren eskola-esperientziak lantzeko, baita inguruneari buruzko galderak egiteko ere, beste eremu batzuetan galdetzeraz ausartzen ez direnak.

⁸ 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15). 35. artikulua.- Tutoretza eta orientabidea.

Kasu batzuetan interesgarria izan daiteke tutoretza pertsonalatu bat, ikasleari laguntza pertsonala emango dion erreferentziazko heldu bat proposatzea. Tutoretza horren bitartez, gune bat eskaini ahal zaie babestuta, lagunduta eta onartuta sentitzeko, erresilientzia garatzeko aukera ematen duen gune bat.

I. eranskinean tutoretzari buruzko informazio osagarria ematen da.

3.6.1.2. Harrera-plana

Adoptatutako ikasleen kasuan, eskolatzealdiaren hasiera oso garrantzitsua da, harrera egoki batek segurtasuna ematen duelako eta erabakigarria delako ikasleekin eta familiarekin afektibitate-loturak eraikitzeko. Nahiz eta ikastetxeek harrera-plan orokor bat eduki, plan horretan adoptatutako ikasleen harrerari buruzko gaiak bildu behar dira.



- Haur eta nerabe bakoitzak eskola-ingurunera egokitzeko behar duten denbora errespetatu behar da.
- Haur horiek eskolan nola sartu behar duten prestatu behar da familiaren laguntzarekin.
- Egokitzapenari lehentasuna eman behar zaio eta harremanak ezartzeko modua zaindu behar da.

Harrerako alderdi garrantzitsuak:

- **Eskolaren eta familiaren arteko elkarlana.** Eskolak eta familiak elkarlanean jardun beharko dute ikastetxeko harrera elkarrekin prestatzeko. Familiarekin egiten diren lehenengo bileretan, eta eskolatzealdiari hasiera eman baino lehen, haurraren adopzioari buruzko gaiak nola landu behar diren adostu beharko da.
- **Eskolatzealdiaren hasiera.** Orientabide orokor gisa, proposatzen da eskolatzealdia ez hastea familia berrira iritsi bezain laster. Komenigarria da, ahal den neurrian, hasieran denbora ematea familia-lotura garatzen hasteko, familiako kide eta komunitateko kide dela sentitzen joateko. Horregatik, hasierako une horretan oso garrantzitsua da presarik ez edukitzea eta haurrari denbora ematea dena berria delako beretzat.

- **Hezitzaileek adopzioaren berri izan behar dute adingabea eskolan hasi aurretik**, informazio hori garrantzitsua da adingabearen garapen globalerako. Informazio hori erabateko konfidentziasunez erabiliko da.
- **Eskola-mailari eta ikasgela taldeari buruzko erabakiak hartzea.** Horretarako, ikaslearen ezaugarriak eta aurretiko eskola-historia hartuko dira kontuan. Gainera, garrantzitsua da adin kronologikoaren eta heltze-adinaren artean bereiztea, zeren, kasuen arabera, hezkuntza-maila adin kronologikoa baino txikiagoa izan baitaiteke. Ildo horretan, komenigarria izan daiteke eskolatzealdia malgutzeko neurriak erabiltzea, adibidez: derrigorrezko eskolaldiaren hasiera atzeratzea.
- **Lehenengo egunak ikastetxean.** Lehenengo eguneko jardueren antolamendua ikasleari edo ikastetxeko ikaskideei bideratuta egongo denez, ikasgelako gainerako ikasleei aldeztu aurretik emango zaie informazioa eta prestatu egin beharko dira, betiere normaltasuna eta errespetua oinarritzat hartuta, giro atsegina eta eroso bermatzeko. Antolaketa-alderdiak adostuko dira familiarekin: hasierako jarduerak, ikastetxera egokitzeko ordutegia, ingurune irekiagoen antolamendua (jolas-garaia, jangela, eta abar)

Harrera-planari buruzko adibide bat dago II. ERANSKINEAN

3.6.1.3. Ekintza Plan Pertsonalizatuak

Ekintza-plan pertsonalizatua⁸ dokumentu bat da, eta dokumentu horretan ikasle baten hezkuntza-premiei behar bezala erantzuteko ikasle bati eta bere inguruneari eskolaldi jakin batean zuzenduta dauden hezkuntzako esku-hartzearen oinarritzko alderdiak biltzen dira.

Hortaz, ikastetxean garatzen diren eta hezkuntza-erantzuna ikasleei egokitzea lortu nahi duten jardun guztiak planifikatzeko eta gauzatzeko erreferente bihurtzen da.

Ekintza-plan pertsonalizatuak dokumentu dinamikoa izan behar du, jardunen arteko koherentzia bermatzeko duena taldean lan eginez, lagunduz eta familiarekin elkarlanean jardunez; era berean, ahaleginak egin behar dira beste dokumentu bat gehiago besterik ez izateko, eta dokumentu horren helburua izatea administrazio-espeditatea betetzeko edukitzea.


⁸ 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15). 37. artikulua.- Aniztasunari erantzuteko neurriak.

Dokumentu sinplea izango da, ikasgelako eta arlo edo irakasgai bakoitzeko programazioari dagokionez funtsezko gaiak bilduko dituena. Honako alderdi hauek bilduko dira:

- Ikaslearen premia espezifikoaren deskribapena.
- Eskola-erakundearen egokitasunari buruzko alderdiak.
- Halaber, ikasgelaren aniztasunari erantzuteko egindako egokitze metodologikoak, zereginak gauzatzeari buruzko jarraipena egiteko arauak (ereduak, kontratuak...), taldeak, materialaren egokitzapenak, denbora eta abar hartuko dira kontuan.
- Era berean, ikaslearen premia zehatzei erantzuteko gauzatuko diren jardun espezifiko pertsonalizatuak bildu beharko dira. Jardun horien adibide gisa honako hauek aipa ditzakegu: tutoretza pertsonalizatua, kontratu pedagogikoa, hezkuntza-errefortzuko plan indibidualak (HEPI), Curriculum Dibertsifikazioko programak (KD) eta abar, baita Curriculum Egokitzapen Indibidualak (CEI) ere. Kasu batzuetan, jardun horiek gauzatzeko Sailaren baimena beharko da.
- Egokitzea ebaluazioan.
- Akordioak familiarekin eta ikaslearekin berarekin.

Garrantzitsua da elkarlan-eredua oinarritzat hartuta egitea, eta ikaslearen eta bere familiaren partaidetza oso funtsezkoa izango da eskolatzealdi osoan. Hezkuntza-eragile horiekin batera elkarlanean jardungo dute aholkulariak, orientatzaileak, eta hala badagokio, Berritzeguneetako HPBek.

FAMILIA



4. FAMILIA



Harreman arina eta elkarren arteko konfiantzan oinarritutako etengabeko komunikazioa izatea familiarekin

Eskola inklusiboaren esparruan, azken urte hauetan, ikastetxeen eta familien arteko lankidetzak ezarri da lehentasunezko helburutzat. Adibide gisa, Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoan (2012 – 2016) honako helburu espezifiko hauek biltzen dira:

- Ikastetxeak orientatzea familiekiko komunikazioa hobetzeko estrategiei buruz.
- Gizarte-bazterketa pairatzeko kalteberenak diren ikasleen harrera erraztea.
- Ahaideen parte-hartzea eta prestakuntza sustatzea.
- Familiek parte hartu behar dute erabakietan eta jardueretan, baina baita ikastetxearen kezketan ere.

Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak EAEko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen du, eta Dekretu horretako 28. eta 29. artikuluetan honako hau aipatzen da: **“Hezkuntza-komunitatearen eta bestelako erakundearen partaidetza”** eta **“lankidetzak, inplikazioa eta prestakuntza”**, hurrenez hurren.

Garrantzitsua da harreman hori izatea ikasle orokorrekin, baina adoptatutako haurren kasuan funtsezkoa da. Adoptatutako familia (aurrerantzean familia) eta ikastetxea sozializatzeko eragile nagusiak dira. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan erreferentziatzeko figura emozional nagusiak dira.

Harreman horren esperientziak erakusten du egoera heterogeneoa eta askotarikoa dela, zenbait kasutan lankidetzak horren balorazioa positiboa da, alderdi bakoitzak betetzen duen rola hurbila da eta elkarri aitortzen diote rol hori, baina badaude beste egoera konplexuago batzuk ere, kasu horietako askotan ez da emaitza positiborik lortzen eta adingabearen zailtasunetan ez da aldaketa esanguratsurik lortzen, eta horren ondorioz ikusten da enfrontamendurako, errua leporatzeko eta azalpenak beste alderdian bilatzeko joera dagoela.

4.1. Elkarren arteko lankidetzak: oinarrizko premia

Adoptatutako haurraren jokabidea soilik ikastetxearen ikuspegitik edo soilik gurasoen ikuspegitik behatzeak zaildu egiten du adoptatutako pertsona bere osotasunean ikustea, eta, horregatik, arriskua dago abian jartzen diren

jardunek premia batzuetan soilik jarduteko ikaslearengan globalki jardun ordez. Hortaz, familieek eta hezkuntzako profesionalak elkar ulertu behar dute ikasle horiek dituzten premiak alderdi guztien laguntzarekin landu ahal izateko.

Horretarako, aldaketa batzuk sustatu behar dira:

- | | |
|---|---|
| 1. Beste alderdia juzgatu eta ebaluatzeko joera alde batera utzi eta alderdi bakoitzak ikusten duenarekiko interesa agertzen hasi behar da. | eta aldaketak sortzen dituzten jardunei buruz ikastean oinarrituta dagoen harremana eduki behar da. |
| 2. Arduradunak bilatzeko eta aldaketarik ezan arreta jartzeko joera alde batera utzita ikusitako hobekuntzak partekatzeke espazioak sustatu behar dira. | 4. Elkarri eskatzea alde batera utzi behar da eta elkarri lagundu behar zaio eta konponbide partekatuak bilatu behar dira. |
| 3. Askotan aurreiritziz beteta dagoen funtzionamendua alde batera utzi behar da | 5. Lan zatitua eta indibidualizatua alde batera utzi behar da eta talde-lana egiteko premia aitortu behar zaio elkarri, bereziki kalteberatasun handieneko egoeretan. |

4.2. Familiaren inplikazioa

Inplikazioa sustatzea, beraz, profesionalak ahultzea, familiak desmoralizatzea eta aldaketa ezinezkoa delako eta ikasleen zailtasunak ezin zuzenduzkoak direlako ideia indartzen duten mota guztietako baliabideak ezartzea prebenitzen duen baldintza bat da.

Familia ikastetxean inplikatzeak eskatzen du lan egitea erabakiak parteka daitezen, ebaluatzeko nahiz jarraipena egiteko guneen egitura eta esku-hartze berriak diseina daitezen sustatzeko. Irakasleek baloratu egin behar dute ulertzeko premia eta ikasleen informazioa ikastetxetik kanpo txertatu behar dute premien esanahiari buruzko azterketa globalago eta zuzenago bat egin ahal izateko.

Familiak sentitu behar du bere iritzia kontuan har daitekeela, alde batera utzita erabakia hezkuntza-mailan hartzea; familiak nabaritu behar du irakasleei lagundu eta irakasleak bideratu ahal izateko adopzioari buruz egiten duen ekarpena, daukan ezagutza eta prestakuntza aitortzen dela ikastetxeari lagundu diezaikeela sentitu behar du, eta, zailtasunen bat baldin badago, behar diren soluzioak edo laguntzak elkarrekin bilatzeko gai izan behar dute.

Inplikatzea ez da ekintza jakin bat, baizik eta lan-metodologia bat, bilerak maiz egitea, informazio arin eta jarraitua trukatzea, esku-hartzea ebaluatzeko eta planifikatzeko une espezifikoak egituratzea eta abar eskatzen duena.

Inplikazioak premien ikuspegiaren inguruan hurbiltzea faboratu dezake eta epe laburrean eragiten du erabaki partekatuena hartzea. Hori guztia gorabehera, adierazi behar da inplikazioaren helburu bakarra ez dela erabaki

partekatuak hartzea; izan ere, familiak nahiz ikastetxeak badituzte eremu batzuk zeinetan gai diren eta autonomoak diren erabakiak hartzeko.

Inplikazioak arriskuak, zalantzak eta beldurrak partekatzea dakar berekin, batzuetan, kasu larrietan familiei eta profesionali sortzen zaien bakardade- eta isolamendu-sentsazioa murrizten du, eta lantaldea sortzen laguntzen du.

Arestian adierazi dugunez, inplikazioa lan-metodologia gisa sustatzeko, harremanetarako uneak egituratu behar dira eta etengabeko komunikazio-bidea definitu behar da. Baina zenbait egoera eta unetan ezinbestekoak dira inplikazio eta laguntza horiek:

1. Ikaslea ikastetxean sartzen denean eta harrera-plana egiten denean.
2. Tutoreak aldatzen direnean, bereziki Lehen Hezkuntzan, ikasleek dituzten premiak ulertzen eta premia horiei erantzuten laguntzeko asmoz.
3. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapen arteko trantsizioetan.
4. Jarduketa-planak egitean.
5. Ikasleak portaera erregulatzeko premiak dituenen.
6. Hurrek ikastetxetik kanpo arreta espezializatua jasotzen dutenean, egoera eta lantzen ari diren esku-hartzeko helburuak behar bezala ezagutzen laguntzeko.
7. Lan-estrategien eraginkortasuna aldizka ebaluatzeko eta elkarrekiko laguntza bultzatzeko.

4.3. Nola bultza daitezke familiekiko lan-harremanak?

- **Zintzotasuna.** Premiak ez ezik, indarrak eta arriskuak ere onartzea zintzotasunari laguntzen dion estrategia bat da.
- **Ez epaitzea eta ez errua leporatzea.** Haur horien premiek eskatzen dute konponbideak bila daitezen sustatzea alderdi bakoitzak duen erantzukizuna ebaluatzea baino gehiago.
- **Elkar entzuteko uneak sustatzea.** Elkar ezagutzeko guneak bultzatzeak ahalbidetzen du alderdi bakoitzaren eginkizunen, zereginen eta inplikazioen elkarrekiko ezagutza. Entzuteak alderdi bakoitzari askotan ahalbidetzen dio kezak eta beldurrak partekatuak direla sentitzea.
- **Ahulguneak eta indarrak adieraztea.** Ahalbidetzen du konponbideak alderdi positibotik begiratuta bilatzea, estrategia posibilistak eta eskuragarriak ahalbidetuz.

4. Irudia. Nola bultza daitezke familiekiko lan-harremanak.



- **Goxotasunguneak egituratzea.** Gune horietan, komunikazioak giro segurua, defentsarako ez dena, egituratua eta argia ahalbidetzen du.
- **Bilerak planifikatzea.** Bilera bakoitzaren helburua definitzeak ahalbidetzen du bilerako gai nagusia premia garrantzitsuenetan zentratzea, gaizki-ulertuak saihestuz. Bileraren helburua informazio bat ematea, erkaketa bat eskatzea edo partekatutako erabaki bat bultzatzea izan daitekeen argitzeak laguntzen du zehaztasun ezarekin lotutako ondoezik ez izaten.
- **Akordioak eta konpromisoak ezartzea.** Horiek boluntarioak izan behar dute eta lan partekatuko estrategiaren sentimendua indartzeko premiatik bultzatu behar dira. Akordio horiek berrikustea aitzakia ona da inplikazioa indartzen jarraitzeko.
- **Argitasunez informatzea eta adostasunez erabakitzea.** Premisa horietatik abiatzeak laguntzen du elkarrekiko komunikazioa eta alderdiek hauraren egoera hobetzen laguntzeko egiten duten ahalegina aitortzen.
- **Familiak irakasleen jardunen arrazoiei buruz galdetzeko aukera izan dezan bultzatzea.** Galdetzeko gai dela sentitzeak ez du esan nahi beste alderdia zalantzan jartzen dela, baizik eta eskuragarritasunaren eta prestasunaren sentsazioa bultzatzen du.
- **Hizkuntza ulergarria eta familiari egokitua erabiltzea.** Ikastetxeak ahalbidetu behar du komunikazioa familiaren premietara egokituz.

Irakasleen eta familiaren arteko harremanak tresnak behar ditu bi alderdiak elkarrekin komunikatzeko; hori lortzeko, komunikazio-tekniken alorreko prestakuntzak irakasleei segurtasuna ematen laguntzen die eta elkarrekiko konfiantza-giro bat sortzen laguntzen du.

Ezinbestekoa da hitzordu erregularrak izatea familiarekin informazioa trukatzeko, ikasleak etxean nahiz ikastetxean duen portaerari buruzko informazioa trukatzeko, alegia. Elkarrizketen edukiaren barnean, alde batetik, aurkitutako premiei buruzko aipamena egingo da, eta, bestetik, maila akademikoan, sozialean eta emozionalean izandako aurrerapenei buruzkoa, eta kontu handia jarriko da alderdi negatiboak soilik ez nabarmentzeko. Elkarrekin lan egiteko ahalegina egingo da, esku-hartze komunak, eta aldizka berrikusiko diren helburu zehatz eta planifikatuak ezarriz. Familiari helarazten zaion mezua positiboa izateaz gain, aurreratzeko aukeretan eta zailtasunetan baino gehiago helburuetan oinarrituta badago, baterako lanaren jarrera ahalbidetuko da.

DEKALOGOA

ESKOLA

ETA

ADOPZIOA



5 DEKALOGOA. ESKOLA ETA ADOPZIOA¹

01

Hezkuntza-sisteman txertatzea. Eskolara egokitzeko aldia zaintzea. Familia-loturari eta -egokitzapenari lehentasun gehiago ematea ikastetxean berehala txertatzeari baino. Garapen- eta heltze-maila kontuan hartzea eskola-maila esleitzerakoan.

02

Eskola-jarraipen koordinatua eta aldizkakoa profesionalen eta familiaren artean. Premiak detektatzeko eta erantzun egokiak emateko estrategiak proposatzeko balio beharko du.

03

Aurretiko bizipenak kontuan hartzea, ezinbestekoa da ezagutzea ulertzeko eta laguntzeko.

04

Eskolak ikasleen premietara egokitutako erantzuna ematea. Autokudeatzen ikasteko eta beren segurtasunari eta konfiantzari eusten ikasteko laguntzea.

05

Curriculumaren edukiak berrikustea eta eguneratzea: helburuak, edukiak, materialak, jarduerak eta abar, ikasle bakar batek ere ez sentitzeko baztertuta dagoela edo ez dagoela behar bezala ordezkaturik.

06

Ebaluazioa. Ikasleak bere ikaskuntzan izan duen bilakaera balioestea banako lorpenen arabera, ahalegina balioestea, erritmoa errespetatzea, denbora gehiago ematea azterketetan, ahozko azterketak egitea eta abar.

07

Hezkuntza sozioemotionala eta balioetan oinarritutakoa ematea ikasleek bizitzan izandako ibilbide partikularrek ikasle horien garapen sozioemotionala nola baldintzatu duten kontuan hartuta.

08

Arrazakeriaren aurrean, tolerantzia zero. Eskola bizikidetzan eta errespetuan oinarritutako hezkuntza-espazio gisa.

09


Irakasleentzako prestakuntza eta laguntza. Irakasleei adopzioaren alorreko prestakuntza espezifiko ematea, zirkunstantziak edo egoera pertsonalak direla medio bere garapen pertsonalean eragina pairatu duen edonor ulertzeko eta erantzunak emateko.

10

Familia eta eskola koordinatzea. Koordinazio horrek eskatzen du elkarri informazioa ematea, elkar ulertzea eta elkar errespetatzea, eta, gainera, komunikazioa arina, jarraitua eta konfidentziala izatea.

1 Honen egokitzapena: Comisión escuela y adopción. CORA "Adopzioaren eta Harreraren Defentsarako Elkarteen Koordinakundea"

BALIABIDEAK



6. BALIABIDEAK

BALIABIDEAK eta web-orriak

- Eusko Jaurlaritza “Berdinen arteko tratu txarren kasuetan esku hartzeko gida ikastetxeentzat”.
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>
- Eusko Jaurlaritza ESKOLABAKEGUNE izeneko webguneak hainbat material eskaintzen dizkigu gatazka eta bizikidetzak positibo lantzeko ikasgelan
<http://www.eskolabakegune.euskadi.eus>
- Proiektua: “Zurumurruekin kontrako estrategia, arrazakeriari aurrea hartzeko”. Proposamen horren bitartez, jarrera eta portaera arrazisten kontra egin nahi da.
www.antirumores.com
- Adopzioari buruzko gida hezitzaileentzat
- Adoption Helper’s teacher’s Guide to Adoption. Egilea: Robin Hillborn, Family Helper aldizkariaren editorea (www.familyhelper.net). Copyright 2006 Robin R. Hillborn. Itzultzailea eta egokitzailea: N. Chiner eta
www.postadopcion.org
- CREENA: Nafarroako Gobernuaren webgunea, berdinen arteko tutoretzari buruzko bibliografia, artikulak eta abar biltzen dituena.
- Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren aldizkaria. newsletters@afin.org
- Web Adopzioa, elkargunea.
<http://adopcionpuntodeencuentro.com/>

IPUINAK

- Cuentos infantiles para compartir con nuestros hijos, alumnos educandos. Ipuinak gaztelaniaz eta euskaraz
<http://cuentosparahaizea.com/>
- Cuentos y novelas juveniles sobre adopción
<http://adoptivanet.info/encasa/adopteca-juvenil-adopcion.php>
- Cuentos y novelas juveniles para la no discriminación y sobre las diferencias étnicas, culturales, religiosas y económicas.
<http://adoptivanet.info/encasa/adopteca-juvenil-diferencias.php>
- Cuentos y novelas juveniles en el que se presentan diversos modelos de familia.
<http://adoptivanet.info/encasa/adopteca-juvenil-familia.php>
- Mis ojos de almendra.
<http://misojosdealmdra.blogspot.com.es/>
- Cuentos para explicar la adopción a los niños.
<http://www.escueladesuperpadres.es/cuentos-para-explicar-la-adopcion/>
- Aquí... conmigo. Adopzioari buruzko ipuinak.
<http://africameespera.blogspot.com.es/p/cuentos.html>
- Dokuteka. Ipuinak. Umealaia
<http://www.umealaia.com/index.php/es/programas/docuteca>


FILMAK

- “Películas infantiles en las que se trata la adopción”
<http://adoptivanet.info/encasa/adopteca-juvenil-peliculas.php>
- “Películas y adopción”
<http://peliculasyadopcion.blogspot.com.es/>
- Dokuteka. Bideoak. Umealaiia.
<http://www.umealaia.com/index.php/es/programas/docuteca>

FEDERAZIOAK ETA ELKARTEAK

- ADDIF. Adopziorako eta harrerarako Bartzelonako Elkarteak.
www.addif.support.org
- AFAAN. Andaluziako Familia Adoptatzaileen Elkarteak.
<http://www.juntadeandalucia.es/organismos/igualdadypoliticassociales/areas/infancia-familias/asociaciones.html>
- AFAAR. Errioxako Familia Adoptatzaileen eta Harrera Familien Elkarteak.
www.afaar.es/
- AFAC. Txinan adoptatu duten familien Elkarteak.
www.afac.info
- AFADA. Aragoiko familia adoptatzaileen Elkarteak.
www.afada.org/
- AFADENA. Nafarroako familia adoptatzaileen Elkarteak.
www.afadena.es
- ANICHI. Txinako haurrak adoptatu dituzten familien elkarteak (Gipuzkoa)
www.anichi.info/
- ARFACYL. Gaztela-Leongo Familia Adoptatzaileen Eskualde Elkarteak
www.arfacyl.org/
- ATLAS. Adopzioaren Defentsarako Elkarteak. (Madril).
www.asatlas.org/
- CORA. Adopzioa eta Harrera Elkartearen Koordinakundea.
www.coraenlared.org
- UME ALAIA. Adopzioari Laguntzeko Elkarteak (Gipuzkoa)
<http://www.umealaia.com>
- UME ALAIA. Adopzioari Laguntzeko Elkarteak (Bizkaia)
<http://www.umealaiabizkaia.com/es>
- UME ALAIA. Adopzioari Laguntzeko Elkarteak (Araba)
<http://umealaiaa.blogspot.com.es/>

BIBLIOGRAFIA



BIBLIOGRAFIA


- Afadena. (2016). *Guía para pequeños grandes éxitos en la escuela*. Nafarroako Gobernua.
- Agintzari, Gizarte Ekimeneko Sozietate Kooperatiboa (2006). *Adoptia. Adopzio ondorengo gidaliburua hezkuntza-arloko profesionalentzat eta gizarte-eragileentzat. Hezkuntza-gakoak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/ADOPTIA_EDUCACION_cas.pdf <http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/09-AGIN-GUIA-ADOPTIA-2-CENT-EDUCAT-EUSK.pdf>
- Agintzari, Gizarte Ekimeneko Sozietate Kooperatiboa (2006). *Adoptia. Familientzako adopzio ondorengo gidaliburua. Hezkuntza-gakoak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- Agintzari. (2011). *Adoptatuak izan diren haurrenganako diskriminazio-jarrereri aurrea hartuz*. Bilbo. Agintzari eta Ume Alaia
http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/GUIA_DISCRIMINACION_Cas.pdf <http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/11-ADOPTIA-UAB-GUIA-DISCRIMINACION-Euskera.pdf>
- Agintzari (2008) *Adoptia txiki "haur adoptatuentzako gida"*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
<http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/09-AGIN-GUIA-ADOPTIA-3-TXIKI-EUSK.pdf>
http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/ADOPTIA_TXIKI_cas.pdf
- Barudy, J., eta Dantagnan, M. (2005). *Los buenos tratos a la infancia. Parentalidad, apego y resiliencia*. Barcelona. Gedisa.
- Barudy, J., eta Dantagnan, M. (2011). *La fiesta mágica y realista de la resiliencia infantil*. Barcelona. Gedisa.
- Berastegi, A. (2010). "Relaciones afectivas familiares: apego y adopción", in F. Loizaga Latorre (Ed.), *Adopción Hoy: Avanzando Hacia Nuevas Estrategias*, 109-138. or., Mensajero, Bilbo.
- Berástegui, A. eta Gómez, (2007). *Esta es tu historia: identidad y comunicación sobre los orígenes en adopción*. Madrid. Comillaseko Pontifize Unibertsitatea.
- Brodzinsky, D., Schechter, M., eta Marantz Henig, R. (2012). *Soy adoptado. La vivencia de la adopción a lo largo de la vida*. Madrid. Eguneratutako edizio berria, Grupo5
- Bowlby, J. (1976). *El vínculo afectivo*. Barcelona. Paidós.
- Cyrulnik, B. (2009). *Los patitos feos. La resiliencia: una infancia infeliz no determina la vida*. Barcelona. Gedisa
- Díaz Aguado, M.J. (2004). "Educación Intercultural y cooperación. Una nueva interacción educativa para un mundo que también es diferente". *Education*, 22. zk.
- Díaz Aguado, M.J. *Convivencia escolar, disciplina y prevención de la violencia*.
- Duran, D. eta Visal, V. *Tutoría entre iguales: de la teoría a la práctica. Un método de aprendizaje cooperativo para la diversidad en secundaria*. Barcelona. Graó.
- Ezama García-Ciaño, E. (2015). *Guía para la elaboración de la historia de vida*. Berdintasun eta Gizarte Ongizate Saila. Hezkuntza Saila. Andaluziako Junta.

- Fernández, M. (Koord.) (2009). *Acogimiento y adopción en la escuela. Un paso más en la atención a la diversidad en las aulas*. Eskolako Harrerari eta Adopzioari buruzko Andaluziako I. Jardunaldiei buruzko gogoetak. Malaga. Berdintasun eta Gizarte Ongizate Saila. Hezkuntza Saila. Andaluziako Junta.
- Francia, A. (2013). *La niña y el niño adoptados en el aula. Factores que influyen en la inclusión escolar*. Hilo rojo. https://issuu.com/anafrañcianturregi/docs/el_ni_o_y_la_ni_a_adoptados_en_el_aula
- García, A., Orozco, M. eta Vidaurrázaga, M. J. (2007). *Adoptar, integrar y educar. Una guía de orientación para educadores y familias*. Madril. Familia eta Gizarte Gaietako Saila. Madrilgo Erkidegoa.
- Geddes, H. (2010). *El apego en el aula. Relación entre las primeras experiencias infantiles, el bienestar emocional y el rendimiento escolar*. Bartzelona. Graó.
- Gómez, J. eta Moreno, C. (Koodinatzaileak) (2011). *Adopción, acogimiento y escuela. Guía para la comunidad educativa*. Sevilla. Adopzioari eta Haurrei Laguntzeko Andaluziako Elkarte (LLAR). <http://asociacionllar.org/>
- Gómez, J. eta Martínez, R. (Koodinatzaileak) (2009). *La adopción de menores: retos y necesidades*. Sevilla. Adopzioari eta Haurrei Laguntzeko Andaluziako Elkarte (LLAR).
- Gonzalo, J.L. (2009). *Guía para el apoyo educativo de niños con trastorno de apego*. Buenos Aires. Libros en Red. <http://www.librosenred.com/libros/>
- Gonzalo, J.L. (2015). *Vincúlate. Relaciones reparadoras del vínculo en los niños adoptados y acogidos*. Bilbo. Desclée De Brouwer.
- Eusko Jaurlaritz. *Aniztasunari arreta emateko plana (2012-2016)*.
- Hernández-Muela, S., Mulas, F., Téllez de Meneses, M., eta Roselló, B. (2003). “Niños adoptados: factores de riesgo y problemática neuropsicológica.” in *Revista de Neurología*, 36, 108.-117. or.
- Jimenez, J.M., Martinez, R., Mata, E. (2010). *Guía para trabajar la historia de vida con niños y niñas. Acogimiento familiar y residencial*. Berdintasunerako eta Gizarte Ongizatearen Saila. Andaluziako Junta.
- Jimenez, J.M., Martinez, R., Mata, E. (2011). *Viaje a mi historia: libro de vida*. Berdintasun eta Gizarte Ongizate Saila. Hezkuntza Saila. Andaluziako Junta.
- Labajo, G., Bueno, N. eta beste batzuk (2008). *Guía didáctica en materia de adopción para educación infantil y primaria*. ARFA Gaztela eta Leongo Junta.
- Loizaga, F. (2009). *Adopción Internacional. Indicadores psicológicos y de salud de la infancia adoptiva*. Deustuko Unibertsitatea.
- Martín, L. (2004). *Las diferencias étnicas y culturales: un reto en la adopción internacional*. Sevilla. Andaluziako Junta.
- Miravent, V. eta Ricart, M. (2005). *Adopción y vínculo familiar*. Bartzelona. Paidós.
- Montserrat, C. (2008). *Niños, niñas y adolescentes acogidos por sus familiares: ¿qué sabemos, qué conocemos?* Bartzelona. Generalitat de Catalunya, Departament d'Acció Social i Ciutadania
- Múgica, J. (2010). “Claves y recursos narrativos para el abordaje de la condición adoptiva de niños, niñas y adolescentes”. In Loizaga, F. (2010) *Adopción hoy. Nuevos desafíos, nuevas estrategias*. Bilbo. Mensajero.
- Muñiz, M. (2007). *Cuando I@s niñ@s no vienen de París. Orientación y recursos para la postadopción*. Sevilla. Berdintasunerako eta Gizarte

Ongizatearen Saila. Andaluziako Junta.

- Navarro Elipe, M. (2011). *Guía para la intervención educativa del niño adoptado*. Aragoiko familia adoptatzaileen Elkarte (AFADA) Zaragoza.
- Palacios, J. (2009). “La adopción como intervención y la intervención en adopción”. *Papeles del Psicólogo*, 30 (1), 53.-62. or.
- Palacios, J. (2010). “Familias adoptivas”. In E. Arranz eta A. Oliva (Koordinatzaileak), *Diversidad Familiar y Desarrollo Psicológico*. (51.-67. or.). Madril. Pirámide.
- Palacios, J. Sánchez-Sandoval, Y. eta León, E. (2004). *Adelante con la Adopción*. Sevilla. Berdintasunerako eta Gizarte Ongizatearen Saila. Andaluziako Junta.
- Palacios, J. Sánchez-Sandoval, Y. eta León, E. (2005). *Adopción internacional en España: Un nuevo país, una nueva vida*. Madril. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.
- Palacios, J., eta beste batzuk (2014). *Entiéndeme, enséñame. Guía para la atención educativa al alumnado en situaciones de acogimiento familiar, adopción y acogimiento residencial*. Sevilla. Andaluziako Junta.
http://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/entiendeme_ensename_0.pdf
- Przesmycki, H. *La pedagogía del contrato. El contrato pedagógico en la educación*. Bartzelona. Graó.
- Pujolás, P. El aprendizaje cooperativo. Bartzelona. Graó.
- Pujolas, P. (2008). 9 claves del aprendizaje cooperativo. Bartzelona. Graó.
- Rygaard, N. P. (2008) El niño abandonado: guía para el tratamiento de los trastornos del apego. Bartzelona. Gedisa
- San Román, B. (2007). Adopción y escuela. Guía para educadores y familias. Madril. Blur ediciones, S.L.
- San Román, B. (2008). Adopción y escuela. Guía para educadores y familias. Madril. Blur Ediciones.
<http://www.postadopcion.org/libro-adopcion-y-escuela/guiaparaelapoyoeducativodeninoscontrastornosdeapego.html>

ERANSKINAK



ERANSKINA

ERANSKINAK I

TUTORETZA

Ikastetxeak tutoretzaren honako alderdi hauei buruzko erabakiak hartuko ditu:

- Egingo diren tutoretza motak.
- Tutoreak aukeratzeko irizpideak: boluntarioak, ikasleei eskolak emango dizkieten edo emango ez dizkieten tutoreak.
- Tutoretzaren helburu espezifikoak.
- Tutoreen eginkizunak.
- Tutoretzen antolamendua: denborak, guneak, koordinazioak.
- Familiekiko koordinazioa: moduak, guneak, denborazkotasun finkoa eta aldian behingoa.
- Tutoretza garatzeko tresnak, baliabideak, materialak eta abar: kasuen erregistroak, kasuen azterketak, eta abar.
- Irakasleek beren zereginak tutore gisa garatzeko egokiak diren estrategietan prestatzea irakasleak.

TUTORETZA PERTSONALIZATUA

ESTRATEGIAREN DESKRIBAPENA

Tutoretzaren barnean, taldeko tutoretzaz gain, tutoretza pertsonalizatuaren modalitatea ere badago, baina azken honek ez du taldeko tutoretza ordeztuko.

Tutoretza pertsonalizatuak ahalbidetzen du arreta hurbilagoa, jarraitua eta ikasle

bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako arreta ematea.

Proposamen honetan tutore pertsonal gisa jarduten duen irakasleak eta ikasleak osatzen duten bikotea nabarmentzen da, helburua ikasleari laguntzea izanik, bai antolatzen, bai bere ikasketak hobetzen, baita eskola-bizitzan txertatzen ere.

Helburua zera da, gizarteratzea eta ikasketetan arrakasta izatea zaildu dezaketen egoerei aurrea hartzea eta aurre egitea.

EZAUGARRIAK

Itxaropen handiak sustatu nahi dira, irakasleekin eta familiekin elkarlanean jardunda autokontzeptu akademiko eta pertsonal positiboa sustatzeko.

Zuzeneko harremana ezartzen da tutorearen eta ikaslearen artean gai akademiko pertsonalei buruz eta ikaslearen egoera pertsonalari, sozialari eta afektiboari buruz. Garrantzitsua da bien artean harreman eta ulermen ona izatea.

Ikasgelako tutorea ardura daiteke tutoretza pertsonalez edo irakasle taldeko beste edozein irakasle ardura daiteke. Garrantzitsuena da konfiantza-giro bat sortzea eta elkar errespetatzeko giro bat sortzea.

Zeregin horrek berekin dakar jarraipena egiteko eta arreta sistematikoagoa emateko konpromisoa; horregatik, bi alderdiek modu boluntarioan onartu behar dute.

Tutore pertsonalaren zeregin nagusia irakasle taldeak eta familiak adostutako plan pertsonalizatua koordinatzea da.

Plan horretan honako hauek bilduko dira: bi alderdiek adostutako helburuak eta konpromisoak, jarraipena egiteko denborak eta moduak eta ikasgelako tutorearekiko koordinazioa, baldin eta zeregin hori beste pertsona batek egiten badu.

Eskola-agenda tresna egokia da antolamendu akademikoan laguntzeko eta familiarekin komunikatzeko, eta, ahal denean, email bidez osa daiteke.

HELBURUAK IKASLEEI DAGOKIENEZ

- Ikaslearen erreferentziazko figura izatea eta laguntza ematea premia duen edozein unetan.
- Ikaslearen jarraipena egitea: eskoletara joatea, portaera, eskola-materiala, etxeko lanak.
- Afektibitate-lotura positiboa lortzea ikaslearekin.
- Taldeko eta ikastetxeko partaide delako sentimendua eraikitzen laguntzea.
- Itxaropen positiboak sortzea ikaslearengan eta ikaslearen indarretatik abiatzea.
- Autokontrola bultzatzea hura garatzeko tresnak emanez: arazoei buruz hitz egitea eta irtenbideak bilatzen saiatzea.
- Motibazioa bultzatzea errefortzu positiboaren bitartez.
- Komunikazioa lantzea: entzute aktiboa, tonua...
- Portaera proaktiboa bultzatzea portaera erreaktiboaren ordez.
- Sustatzea ikastetxean egokitzea eskolako lehen egunetik.
- Ikaslearen integrazio soziala hobetzea ikasgelan nahiz eskolako beste gune batzuetan.

- Autonomia eta norberarenganako konfiantza sustatzea.
- Bere eskola-errendimendua hobetzen laguntzea.
- Ikasleari laguntzea zereginak eta beharrezkoak diren materialak antolatzen.

HELBURUAK FAMILIARI DAGOKIONEZ

- Familiarekin elkarlanean jarduteko ahalegina egitea: helburu komunak adostea eta jarraipena egitea bakoitza bere eremutik.
- Familiarekin koordinatzea eskolako lana antolatzen laguntzeko, baita beste alderdi sozial eta emozional batzuk lantzeko ere.
- Ikasketa-prozesuari, bilakaerari, garapen pertsonal eta sozialari, ikasketa-ibilbide posibleei eta etorkizun profesionalari buruz familiari informazioa emateko modu egokiak erabiltzea.
- Familiak ikastetxean duen partaidetza eta inplikazioa areagotzea.

ANTOLAMENDUA

- Tutoreak aukeratzeari buruzko erabakiak.
- Elkarrizketak, bilerak eta abar prestatu eta erregistratzea.
- Komunikaziorako eta elkarrizketarako giroa.
- Tutoretza pertsonalizatuaren antolamendua: erabiliko diren denborak, moduak eta bideak, irakaslearen eta familiareen arteko koordinazioak.
- Lanerako plan bat adostea irakaslearekin eta garatu behar den lana zehaztea.

- Jarraipena.

ROLAK

Tutorearen gaitasunak:

- Komunikazio enpatikoa eta benetakoa.
- Entzuten, galdetzen, erantzuten eta interpretatzen jakitea.
- Harrera-ahalmena.
- Pertsonaren duintasunarekiko eta autodeterminaziorako gaitasunarekiko errespetua.

Honako hauek saihestu behar dira tutoretzan:

- Moralizatzea.
- Paternalismoa.
- Jarrera inkisidorea, adiskidekeria.
- Zinezkotasunik eza.

EBALUAZIOA

Ikaslearekin batera ebaluatuko da hasieran proposatutako lanerako planaren helburuak eta lanaren garapena lortu ote diren. Horretarako, saioen, elkarrizketen eta anekdota-bildumen erregistroak, elkarren gogobetetze-maila eta abar erabil daitezke.

PRESTAKUNTZA

Komenigarria izango litzateke elkarrizketa pertsonaleko teknikei, laguntzaile/tutore gisa betetzen den rolari, tutoretzak antolatzeari eta abarri buruzko oinarritzko prestakuntza antolatzea ikastetxean

ESTRATEGIAREN ABANTAILAK ADOPTATUTAKO IKASLEEI DAGOKIENEZ

Estrategia hori mesedegarria da edozein motatako ikaslerentzat, nahiz

eta modu egokitan gauzatu behar den ikasle bakoitzaren ezaugarrien arabera. Adoptatutako ikasleen kasuan oso neurri egokia da; izan ere, batzuetan beren historia pertsonaletik eratorritako premiak izan ditzakete, baita emozioen garapenetik, integrazio sozialetik edo ikasketetatik eratorritakoak ere.

Tutoretzen bitartez, gune bat eman dakieke afektibitate-loturak ezartzeko, segurtasuna emateko eta erreferentziazko figura egonkor bat ahalbidetzeko.

Tutorearekiko harremanak gune bat eskain dezake ikasleak bere egoera zailak partekatu ahal izateko, batzuetan entzuten dituen komentario desegokiak lantzeko edo beretzat negatiboak diren eskola-esperientziak lantzeko, baita inguruneari buruzko galderak egiteko ere, beste eremu batzuetan galdetzera ausartzen ez direnak.

BERDINEN ARTEKO TUTORETZA

ESTRATEGIAREN DESKRIBAPENA

“Kideen arteko tutoretza” ikasle bikoteak sortzean oinarritzen da, harreman asimetrikoa izanik (haietako batek tutorearen rola beteko du eta besteak tutoretza jasotzen ari denarena), helburu komun, ezagun eta partekatu bat izanik (curriculumeko irakasgai bat irakastea eta ikastea), eta bi ikasleen arteko harremanaren bitartez gauzatuko da. Harreman hori irakasleak planifikatuko du.

EZAUGARRIAK

Berdinen arteko tutoretzaren baliabidea abian jartzeak ahalbidetzen du ikasgela ikastunen komunitate bat bezala ulertzea, non garrantzitsuena ez den irakasleak bere ikasleei ematen dien zuzeneko laguntza soilik, baita ikastun horiek irakaslearen plangintzarekin eta ikuskapenarekin elkarri ematen dioten laguntza ere.

Bikoteko bi kideek ikasteko egoera horretaz baliatzen dira: ikasleak tutorearen plantak eginez ikasi egiten du, irakastea ikasteko

estrategia ona baita, eta, aldi berean, tutoretza jasotzen ari den ikaskideak ikasi egiten du bere ikaskide tutoreak eskaintzen dion laguntza pertsonalizatuari esker.

Garrantzitsua da trebeagoak diren ikasleek ez hartzea beren burua “emaitzat”, baizik eta konturatu behar dute beren ikaskideei erakutsiz ikasteko aukera dutela.

Bikoteek rola aldatuko dituzte elkarren artean gaien arabera; horrela, kasu batean tutoretza jasotzen ari den ikaslea beste kasu batean tutorea izan daiteke. Adin desberdinetakoak ere izan daitezke. Estrategia beste gune batzuetara ere hedatu daiteke: liburutegia, etxea eta abar. Komenigarria da tutoretza mota horri buruzko estrategietan oinarritutako oinarritzko prestakuntza antolatzea ikastetxean.

Berdinen arteko praktikak:

- Hezkuntza-balioa ematen die ikasleen arteko interakzioei.
- Ikasteko aukerak ematen dizkie ikasle guztiei.
- Elkartasuneko eta jendetasuneko balioak garatzen ditu.
- ...

BERDINEN ARTEKO TUTORETZAREN ALDAERAK

Berdinen arteko tutoretza asko erabiltzen da, eta erabilera sorta handi bat izateko aukera eman du. Horrela, adibidez, adin desberdinetako ikasleen arteko tutoretza-praktikak daude, edo adin bereko edo ikasturte bereko bikoteen artekoak. Azken horren barruan rol finkoko tutoretzak edo elkarrekiko tutoretzak egon daitezke, tutoreak eta tutoretza jasotzen duenak rola aldizka trukatzeko dituztenean. Era berean, berdinen arteko tutoretzaren kontzeptu zabal horrek honako egoera

hauetako kontuan hartzea eramatean gaitu: familia bateko kideen artean sortutako bikoteen egoerak. Esate baterako, gurasoek beren seme-alaben irakurmenaren tutore gisa jarduten dute, formatu egituratu batean.

ANTOLAMENDUA

Ikasleak beren rol eta zereginetan aldeztu aurretik prestatu ondoren, teknika hau aplikatzeko garaian jarraitu behar den sekuentzia honako hau izan daiteke:

- Prestatze-fasea: ikasle tutoreak eta baimendutako ikasleak hautatzea.
- Tutoretza-saioak diseinatzea (edukiak, oinarritzko egitura, ebaluazio-sistema).
- “Bikoteak” osatzea: ikasle tutore eta baimendua.
- Tutoreak prestatzea.
- Saioak hastea irakasle bat gainbegiratzen ari dela.
- Tutoreen inplikazioari eustea laguntza-irakasleekin bilera formalak eginez eta haiekin harremanetan egonda.
- Tutoretza mota horrek curriculumean, hots, eskolako orduetan eta ebalua daitezkeen esparru batean sartuta egon beharko luke..

EBALUAZIOA

Ebaluazio jarraitua izango da, prozesuan bertan aldaketak egin ahal izateko; horretarako, komenigarria da behaketa-tresnak eta erregistroak erabiltzea ikasleentzat.

PRESTAKUNTZA

Saioei ekin aurretik ezinbestekoa da aurretiko prestakuntza bat egitea

ikasleei azalduz zer proposatzen zaien eta zergatik, tutorearen eta tutoretza jasotzen ari denaren roletik eratorzen ziren jardunak erakutsiz. Gainera, hainbat jarduera erabiliko dira ikasleek beren zaletasunak, interesak eta abar erakusteko.

EMATEN DITUEN ONURAK

Berdinen arteko tutoretzak onura garbiak ematen ditu ikasleentzat, bai tutoretza jasotzen ari denarentzat, bai tutore-lanak egiten ari den ikaslearentzat:

- Tutore-lanak egiten ari den ikasleak bere pentsamendua egituratu eta ordenatu behar du adierazi nahi dituen ideiak argi eta garbi azaltzeko; era berean, daukan ezagutza-mailaz eta ikaskuntzan dituen hutsunez jabetuko da.
- Tutoretza jasotzen ari den ikasleak bere premietara egokitutako laguntza pedagogikoa jasoko du, hizkuntza hurbilago bat erabiliz eta batez ere konfiantza-giro batean.

Berdinen arteko lanak areagotu egiten du ongizatea, motibazioa eta interakzio sozialen eta eskola-errendimenduaren kalitatea.

Berdinen arteko tutoretzak ahalbidetzen du irakasleek denbora gehiago izatea ikasleak lanean ikusteko eta bikoteek egindako aurrerapenak gogoan hartu ahal izateko, eta, gainera, behar duten bikoteei laguntza eman ahal izateko.

IKASLE ENBAXADOREA

ESTRATEGIAREN DESKRIBAPENA

Berdinen arteko tutoretzaren aldaera bat da enbaxadoreak (lagun berriak) edo “ikasle gidak” izendatzea ikastetxean eta gure hezkuntza-sisteman lehenengo aldiz sartzen diren beste jatorri batzuetako ikasleentzat.

Ikasle enbaxadorea izango da bere ikasgelako ordezkaria eta ikasle berriaren aurrean lotura gisa jarduteaz gain, bere zeregin nagusia ikasle berria ikastetxean eta taldean har dezaten laguntzea izango da.

Beste eskola- eta kultura-erreferentzia batzuk dituzten ikasle immigratuentzat enbaxadorearen figura errealitate berrirako lotura da. Eskolako gela guztietan lagunduko dio (erreferentziak gela, jangela, gimnasioa, komuna eta abar), ikaskide berriekin harremanak izatea erraztuko dio, egokitzeko dituen zailtasunak (pertsonalak eta gogo-arlokoak, ulertzeko arazoak eta abar) ulertzeko ahalegina egingo du eta abar.

EZAUGARRIAK

Garrantzitsua da lan hori egingo duen pertsona eskolako kultura-aniztasunaren ordezkaria izatea. Era berean, interesgarria izan daiteke iritsi berriaren hizkuntza partekatzea eta harrera-gizarteko hizkuntzak ondo menderatzea.

Kasuren batean, beharbada hasiera batean kontuan izan beharko da generoaren gaia ere, pertsona enbaxadorearen eta iritsi berriaren arteko harremana arinagoa izateko (batzuetan, adinarengatik edo kultura eta/edo erlijioa direla medio, zaila izan daiteke sexu desberdinetako pertsonen artean hurbileko harremana ezartzea).

Enbaxadoreak, hasiera batean, boluntarioak izango dira, baina komenigarria da harreran murgilduta dagoen talde osoak gauzatzea, lehenago edo geroago, esleitutako zereginak denboraldi batean, eta txandakatzea autonomia bultzatzeko eta mendetasuneko harremanak saihesteko. Zeregin garrantzitsu eta ezinbesteko bat gauzatu nahi da, eta ondo egin nahi da, baina enbaxadore-lana egiteak ez du esan nahi lagunak izan behar dutela nahitaez.

ANTOLAMENDUA

Ikasle enbaxadoreak gauzatu behar dituen zereginak ezin dira prestatu gabe egin. Horregatik, komenigarria da –tutoretza-saioetan, adibidez– iritsi berrientzat gai garrantzitsuenak eta premiazkoenak zein diren jakiteko pistak eman ditzaketen alderdiak lantzea. Era berean, zeregin honek balio behar du hainbat baliori buruzko gogoeta egiteko, hala nola enpatiarri, laguntzari eta lankidetzari buruz, hortik denok ikasten dugulako.

Ikasle enbaxadorearen lana bidera dezaketen ZEREGINAK:

- Ikasle berria eskolan zehar bisita bat egitera eramatea eta ziurtatzea zuzendaritzara, jangelara, gimnasiora, jolastokira eta abarretara joateko bidea ikasi duela.
- Iritsi berriari komunak erakustea, ikur eta ikono garrantzitsuenak azaltzea, erakustea nola eskatu behar den baimena ikasgelatik ateratzeko eta komunera joateko.
- Ikasle berriaren ondoan esertzea ikasgelan, ikasgelako ohiturak jarraitzen laguntzea eta eskolako lanetan dituen zailtasunak ulertzeko ahalegina egitea.
- Behar duenean irakasleari laguntza eskatzen laguntzea.
- Jangelara laguntzea eta berarekin jatera gonbidatzea lehenengo egunetan.
- Jolas-garaian bere taldeko kide izatera gonbidatzea ikasle berria, jokoak azalduz eta jokoetan parte hartzera bultzatuz.
- Ziurtatzea ikasle berriak badakiela nor den eta nola izena duen zuzendariak, bere irakasle tutoreak, hizkuntzako errefortzuko irakasleak eta abar.

Gainera, komenigarria da egindako lana nolabait aitortzea ere. Hori egiteko hainbat modu daude:

- Eskola guztiak ezagutzen duen bereizgarri bat (insignia, eranskailua, eta abar) eramatea enbaxadore-lana egiten ari den bitartean.
- Gurasoei gutun bat bidaltzea beren partaidetza eskertuz eta egindako lana azalduz, hori eginez zer ikasi duen eta bere lanak izan dituen ondorioak.
- Zuzendaritzak sinatutako egiaztagiria.
- Zuzendaritzak iruzkinak jartzea egindakoa goraiatuz ikastetxe osoak partekatzen duen gune publiko batean.

BABESTEA

ESTRATEGIAREN DESKRIBAPENA

Adin desberdinetako ikasleen arteko interakzioak eta laguntza sustatu nahi dira, ikasleen irakurtzeko gaitasuna eta ikasteko motibazioa hobetzeko. Ikasle handiago batek ikasle txikiago bati aukeratutako testuak irakurtzen eta ulertzen laguntzen dio.

EZAUGARRIAK

Ikastetxe batean edo hainbat ikastetxeren artean, adin desberdinetako bikoteak antolatuko dira (zirkunstantzien arabera, hirukoteak ere izan daitezke) bikoteko kideek, irakasleek aholkatuta eta gainbegiratuta, aukeratutako liburuak irakurtzeko.

Bi ikasgeletako irakasleek saioa noiz eta non egingo den adostuko dute, eta saio horretan irakasleak ere egongo dira. Askotan, parte hartzen duen bikote bakoitzaren artean konpromisoa sinatzen da.

Garrantzitsua da jarduera hau handien taldeko arloekin edo irakasgaiekin, balioekin

eta laguntzarekin harreman handiagoa dutenekin lotura izatea, esate baterako, erlijioa edo aukerakoa...

Partaideek dinamikari buruz egin dituzten balioespenak biltzen dira: ikasleen interakzio eta jardun mota, jarrerak, portaerak, errespetua, entzuteko jarrera, partaidetza...

ANTOLAMENDUA

Bi geletako ikasleak alde zuzenetik zehaztutako gunean elkartuko dira.

Irakasleek bikoteak antolatuko dituzte eta erabakiko dute zenbat saiotan jardungo duten elkarrekin bikote horiek.

Liburua aukeratuko da ikasgelako edo liburutegiko liburuen artean, irakasleen aholkularitzarekin.

Saio bakoitzaren hasieran, irakasleentako batek testu labur bat irakurriko du ozenki (hori aukerakoa da, baina komenigarria da eredu bat emateko ozenki nola irakurri behar den jakiteko).

Bikote bakoitza ikasgelan zehar banatuko da eta aukeratutako liburua irakurtzen hasiko dira. Bikoteko kide bakoitzak testua txandaka irakurriko du ozenki eta adin gehiago duen ikasleak ziurtatuko du besteak testua ulertzen duela, eta akats batzuk zuzenduko ditu...

Ikasle bakoitzak irakurtzeko duen gaitasunaren arabera, antzeko luzerako paragrafoak irakurriko dituzte, txandakatu, edo ikasle batek besteak baino gehiago irakurriko du, irakasleak zuzenetik aholkatuta. Irakaslea bikotez bikote ibiliko da eta laguntza moldatuko du.

IKASKUNTZA KOOPERATIBOA

ESTRATEGIAREN DESKRIKAPENA

Ikaskuntza kooperatiboan, ikasgela talde txiki heterogeneoetan antolatzen da, eta ikasleek elkarrekin lan egiten dute eskola-

zereginak ebatzen eta beren ikaskuntzan sakontzen.

Lantaldeek, orokorrean, osaera heterogeneoa izaten dute errendimenduari eta ahalmenari dagokionez, baina batzuetan homogeenak izan daitezke. Ikasleek elkarrekin lan egiten dute beren ikaskuntza eta taldeko ikaskideena maximizatzeko.

Talde-lan kooperatiboak ondorioak ditu partaideen ikasketa-errendimenduan ez ezik, beraien artean ezartzen diren harreman sozioafektiboetan ere. Gainera, estrategia ona da ikasleek irakasleekin duten mendetasuna murrizteko eta erantzukizuna beren ikaskuntza bidez areagotzeko.

EZAUGARRIAK

Elkarrekiko mendetasun positiboa: ikasleek nabaritu behar dute taldeko gainerako kideekin elkartzen diren lotura, eta argi ikusi behar dute ikaskuntzan lortzen duten arrakasta lotuta dagoela gainerakoekin.

Erantzukizun indibiduala eta taldekoa: kide bakoitzak bere lanaren zatiaren ardura izan behar du; horrez gain, talde osoak helburuak betetzeko ardura izan behar du.

Pertsona arteko gaitasunak eta taldeko gaitasunak: ikasleek ikasketa-edukiak ikasteaz gain beren ikaskideekin batera elkarlanean aritzeko beharrezkoak diren gaitasun sozialak eta pertsonalak ere ikasi beharko dituzte.

Sustatu behar da ikasleek partaidetza aktiboa izatea elkarlaneko lan-prozesuen ebaluazioa egiterakoan, bai kide bakoitzak ikasi duena eta kide bakoitzaren lorpen- edo zailtasun-zirkunstantziak ebaluatzen direnean, bai ikasle bakoitzak gainerakoekin izandako partaidetza eta interakzioa ebaluatzen direnean.

Elkarlaneko taldeetan, ebaluazioa:

- Ingurune plural, parte-hartzaile eta

elkarrekiko interakzioko ingurune batean gertatzen da.

- Norberak eta taldeek gaitasunetan izandako lorpenen erregistroak egiten ditu.
- Gaitasun kognitiboak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak ebaluatzen ditu.

IKASKUNTZA KOOPERATIBOAREN ALDAERAK

Ikaskuntza kooperatiboa erabiltzen duen jarduera bat lantzen denean, ikasle taldeak ikasgelan elkarrekin lan egiten du denboraldi batean, ordubetetik hasita hainbat astera bitarte, partekatu dituen ikaskuntza-helburuak lortzeko, eta zereginak eta agindutako lan espezifikoak bukatu egiten dira.

Modu asko daude ikaskuntza kooperatiboko taldeak egituratzeko. Talde horietako batzuk honako hau lortzeko izango dira:

- Informazio berria ikastea.
- Arazoen irtenbidea lortzea.
- Zientziako esperimentuak egitea.
- Konposizio edo gai jakin baten inguruan lan egitea.
- Proiektuak garatzea edozein arlotan, diziplinartekoak.

ANTOLAMENDUA

- Elkarlanean jarduteko ikasgela antolatzeko kontuan hartu behar diren alderdiak
- Elkarlaneko taldeetako lana azaltzea.
- Ikasleak taldetan banatzea: oinarrizkoak, noizean behingoak, adituena, batzarra.

- Altzariak banatzea eta ikasgela girotzea.
- Taldearen funtzionamendurako arauak.
- Taldeen barneko antolakuntza.
- Taldearen plana zehaztea eta lantaldearen funtzionamendua aldizka berrikustea.
- Ospakizunak lantaldeetan eta taldean/ikasgelan.
- Lantaldearen koadernoak egitea.

ROLAK

Irakasleek honako zeregin hauek gauzatu behar dituzte:

- Gelaren helburuak zehaztu.
- Ikaskuntza-taldeei, gelaren antolamenduari eta talde barruko material-banaketari buruzko erabakiak aurretiaz hartu.
- Ikasleei zereginaren eta helburuaren egitura azaldu.
- Ikaskuntza kooperatiboko eskolari hasiera eman.
- Ikaskuntza kooperatiboko taldeen eraginkortasuna monitorizatu eta, beharrezkoa bada, esku hartu.
- Ikasleek izandako lorpenak ebaluatu eta taldeko zereginetan emandako laguntza elkarriketan azaltzeko garaian lagundu.

EBALUAZIOA

- Irakasleak, egindako zereginak eta zeregin horiek lortzeko taldean ezarritako harremanak ebaluatzea.
- Ikasleek egindako lanaren autoebaluazioa egitea, bai taldeari

dagokionez, bai maila pertsonalari dagokionez.

PRESTAKUNTZA

Hasierako prestakuntza behar da non antolamenduzko gai guztiak, gai orokorrak, landu behar diren alderdiak eta abar aztertuko diren.

IKASKUNTZARAKO ONURAK

- Ikasle guztien ikaskuntza faboratzen du.
- Aniztasuna sustatzen da, desberdintasun indibidualak onartzen dira.
- Ikasleen arteko harremana hobetzen du kantitateari nahiz kalitateari dagokionez.
- Ikasgelako laguntza integratua ahalbidetzen du, bi irakasle ikasgelan.

Ikaskuntza kooperatiboak gizarte-harremanen garapena, berdinen arteko ikaskuntza, ikasle guztien artean ikasketa-maila eta gizarte-maila berdina izatea eta guztiak ikasgelako testuinguru naturalean ikastea sustatzen du.

KONTRATU PEDAGOGIKOAK

ESTRATEGIAREN DESKRIKAPENA

Przeemsmysckiren arabera, "1Kontratu bidezko pedagogia ikaskuntza-egoerak antolatzen dituena da, eta egoera horietan, beren burua solaskidetzat daukaten pertsona batzuek elkarriketa bat izan ondoren, negoziatutako akordio bat dago, helburu bat –kognitiboa, metodologikoa edo jokabideen alorrekoa– lortzeko"

Lanerako Planen aldaeratzat har

daiteke eta baliabide gisa erabil daiteke beste estrategia batzuetan: tutoretza pertsonalizatuak...

EZAUGARRIAK

Kontratuak ahalbidetzen du ikasleekin –eta egokitzen hartzen denean ikasle horien familiekin– negoziatzea denbora jakin batean egingo den lana eta idatziz jasotzea hartutako konpromisoak.

Kontratuak arrakasta izateko baldintzak:

- elkar onartzea eta erabakitzeaskatasuna,
- kontratuaren elementuak negoziatzea eta
- konpromisoen jarraipena egitea.

Kontratu pedagogiko batean honako hau jaso behar da idatziz argi eta garbi:

- Parte hartzen duen alderdi bakoitzak zer konpromiso hartzen duen.
- Espero den azken emaitza, kontratuaren helburua izango da emaitza hori.
- Dauzkaten baliabideak eta lortu nahi den helburua gauzatzeko aurreikusitako programa.
- Azken emaitza eta tarteko emaitzak.
- Kontratuaren arrakastaren ebaluazioa, helburua lortzeko jarritako lorpen-adierazleak oinarritzat hartuta.

Lortu nahi diren helburuen eta inplikaturako eragileen arabera, honako hauek aipatu behar dira:

- Berreskuratzeko kontratuak: negoziazio indibiduala.
- Gatazkak konpontzeko kontratuak: indibiduala, taldekoa edo ikasgelakoa.

1 Przemyski, H. (2000). La pedagogía del contrato. El contrato didáctico en educación. Barcelona. Graó

- Proiektuari buruzko kontratua: indibiduala edo taldekoa.
- Ebaluazioari buruzko kontratua: indibiduala.
- Ikasgela kolektiboa: hasiera batean ikasgelarako ezartzen da, eta gero kide bakoitzak bere kontratua idatziko du.

TALDE INTERAKTIBOAK

ESTRATEGIAREN DESKRIBAPENA

Interakzioetan eta talde-lanean oinarritutako estrategia metodologikoa. Ikasgela talde heterogeneotan antolatzen da, talde horietako bakoitzean heldu batek hartzen du parte: beste irakasle bat, edo beste eremu bateko profesional bat, senitarteko bat, boluntarioak... Dauden talde adina jarduera antolatzen dira, eta taldeak jarduera desberdinetan txandakatzen dira saio osoan.

Irakasleak du jarduerak diseinatzeko eta saioa kudeatzeko ardura. Gainerako helduei dagokienez, ahal bada jatorri desberdinetakoak, heldu bakoitza bere taldea dinamizatzeaz arduratuko da, ikasleek elkarki lagunduz irtenbidea eman diezaieten proposatu zaizkien jarduerari.

Gaitasun instrumentalak lantzearekin batera elkartasuna, errespetua eta abar lantzen dira, eta bizikidetzaz hobetu egiten da.

EZAUGARRIAK

Horren funtsa interakzioa eta laguntza da, berdinen artean nahiz beste heldu batzuekin. Ezinbestekoa da ikasle taldeak heterogeneoak izatea.

Irakasleak erabakitzen ditu jarduerak, jarduera horiek egiteko dinamika, noiz zuzenduko diren eta abar. Ikasgelan antolatzen dituen taldeen kopurua eta jarduera kopurua berdinak izango dira. Jarduerak, nahiz eta desberdinak izan, helburu komunak sustatzen dituzte.

Ikasgelan normalean erabiltzen diren jarduerak saio hauetarako egokienak dira.

Boluntarioek dinamizatzen dituzte jarduerak, interakzioa, laguntza eta argudiaketa sustatuz, parte hartzera bultzatzen dute, taldean zer gertatzen den behatzen dute eta irakasleari ematen diote informazioa.

Boluntarioak senitartekoak, ikasle ohiak, goragoko mailetako ikasleak, mota desberdinetako irakasleak, eragile soziokomunitarioak eta abar izan daitezke, baita profil desberdinetako dinamizatzailerak ere, interakzioak dibertsifikatzen eta aberasten dituztenak eta ikasleen motibazioa areagotzen laguntzen dutenak.

Ikasleek, aktiboki eta rolak aldatuz, ikasi eta irakatsi egiten dute, denek ikasten dute. Elkarrizketa, gogoeta eta argudiaketa dira oinarrizko tresnak. Azaltzen duenak ikasten du eta entzuten duenak ere ikasten du.

Saioa zer moduzkoa izan den balioesteko, taldeak dinamizatzen dituzten helduek oharrak egiten dituzte interakzio motari buruz, eta irakasleari ematen dizkiete: ikasleen jardunak, ikasleen jarrerak, portaerak, zeregina bukatu den, norbaitek ez duela bukatu eta zergatik... eta informazio hori guztia irakasleari ematen diete.

Ikasleen balioespenak ere biltzen dira.

ANTOLAMENDUA

4-6 pertsonaz osatutako talde heterogeneoak.

Heldu bat talde bakoitzean.

Egokiena da irakaslea libre egotea zer gertatzen den behatzeko edota edozein unetan laguntzeko; izan ere, taldeak dinamizatzen dituzten pertsonen zeregina ez da azaltzea, baizik eta berdinen arteko partaidetza, kolaborazioa eta ikaskuntza sustatzea.

Sortzen diren taldeen kopurua eta jarduera

kopurua berdina izango dira. Jarduera bakoitza 15 minututik 30 minutura bitarteko denboran garatzen da (adinen arabera). Dinamizatzen duen pertsona bakoitza jarduera berdinez arduratzen da, eta ikasle taldea txandakatuko da talde batetik bestera.

BI IRAKASLEREN BATERAKO JARDUNA IKASGELAN

ESTRATEGIAREN DESKRIKAPENA

Ikastetxeko aniztasunari erantzuteko eta ikasle guztiak artatzeko metodologia eraginkorrek sustatzeko baterako ekintza da. Zereginen antolamendua, irakasle bakoitzaren rola eta ikasleen antolamendua desberdina izango da zereginaren helburuaren eta irakasleen profilaren arabera. Zereginak gauzatzeko uneak dira, ez, ordea, azalpen orokorrak ematekoa.

Ikasgela partekatzen duten pertsonak mintegi berekoak, sail berekoak, maila paralelokoak, ziklo berekoak eta abar izan daitezke. Irakasle bat gehi “espezialista” bat eta arloko irakasle bat izan daiteke: arloko irakasle bat eta errefortzuko irakasle edo “laguntzaile” bat... Kasu guztietan, ikasgeletan irakasle gehiago izateak ikasteko aukerak areagotzea ahalbidetzen du eta ikasleek beren emaitza akademikoak hobetzeko aukera ematen du, eta, gainera, giro ona sortzen da ikasgelan.

EZAUGARRIAK

Helburua zera da, bi irakasle elkarlanean jardutea ikasleen artean elkarriketa eta laguntza emateko interakzioak sustatzeko. Saio horiek ez dira ikasgela taldeari azalpenak emateko erabiltzen.

Bi irakasleak koordinatu egiten dira lan-proposamena planifikatzeko, proposamen hori ikasgelan nola garatuko duten eta testuinguruan kokatutako ikasleen premiei erantzuteko garaian elkarri laguntzeko elkarrekin nola lan egingo duten erabakitzeko.

Hainbat motatako taldeak erabiltzen dira, talde horiek beti heterogeneoak dira eta ikasgela partekatzen duten irakasleek bideratu eta dinamizatzen dituzte.

Irakasle bakoitzak elkarri eragiteko bere estrategiak eta moduak erabiltzen dituenaz, hobeto erantzuten zaio ikasgelako aniztasunari.

ANTOLAMENDUA

Ikastetxeko ordutegiak antolatzekeo garaian baterako esku-hartzea ahalbidetu daiteke.

Gainera, irakasleekin koordinatzeko uneak aurreikusita eduki behar dira, denbora eta gune komunak erabiliz.

Irakasle bakoitzak duen rolaren arabera, honako hau erabaki behar dute: nork prestatuko dituen materialak, nork erantzungo dien galderari, irakasle bakoitzak zein ikasle edo talde artatuko dituen, taldeetan txandakatuko diren, denbora nola kudeatu behar duten, egindakoa nork ebaluatu behar duen eta nola, nor arduratuko den sortzen diren “ustekabekoez” edo ikasleren batekin sortzen diren gatazkez.

II. ERANSKINA

HARRERA-PLANA. ADIBIDEAK¹

Eskola-arrakasta ikasle guztiekin lortu behar dugunez, hasiera-hasieratik bilatu behar dugu. Horregatik, lehenengo harremanak daukan garrantzia eta uzten duen arrastoa kontua hartuta, ahaleginak egin behar ditugu familia eta ikaslea ahalik eta hobekien sentitzeko hasieratik, beren etxean daudela sentiarazi behar diegu. Oso garrantzitsua da ulertzea ikasleak ikastetxean erdigunea direla eta familia gure bidaidea dela.

Abiapuntu horretatik abiatuta, honako harrera-prozesu hau proposatzen da:

AURRETIKO URRATSAK

1. bilera familiarekin

Lehenik eta behin, lasaitasunez, eta familiari ikusaraziz une hori haientzat bakarrik dela, ingurune atsegin eta eroso batean biltzea proposatuko dugu. Lehenengo hitza familiarena da eta ikastetxearen betebeharra atek irekitzea eta sartzera gonbidatzea da.

Lehenengo elkartze horretan informazio garrantzitsuena eman besterik ez dugu egingo. Horretarako, ikastetxeak behar duen dokumentazioa orri batean prestatuta edukiko dugu (lehenengo aldia ez denez, beharrezkoak diren orriak eta paperak prestatuta dauzkagu).

Lehenengo erabakia izango da familia horren semea edo alaba behin-behinean zer mailatan kokatuko den adostea, eta argituko da azken erabakia familiarekin ados jarrita hartuko dela.

Ikastetxeak behar duen dokumentazioaren berri emateaz gain, informazio gehiago ere

emango diegu: posta elektronikoko helbidea, telefonoa, norengana jo behar duten (izena emango zaie) eta abar.

Lehenengo bilera hori une egokia izan daiteke hainbat motatako informazioa lortzeko: familiaren eta aurreko ikastetxearen ezaugarriak, ikasleak aurreko ikastetxean izandako progresioa; gurekin zenbat denbora egongo den, jangela erabiliko duen eta garraioa erabiliko duen. Era berean, eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa emango zaie eta haietan parte hartzeko asmorik ote duten galdetuko zaie, eta abar.

Familiak, Harrera Planaren ardura duten zuzendaritzako kideek lagunduta, ikastetxeko espazio erkideak ezagutuko ditu: ikasleak sartzeko diren lekua, jolastokia, jangela, idazkaritza, autobus-geltokia, eta abar.

Azkenik, hurrengo bilerarako hitzordua jarriko da. Jakinaraziko zaie hurrengo bilerarako aukeratuko dutela beren seme edo alabarentzako tutorerik egokiena; seme edo alaba horrek, gurasoek lagunduta, ikastetxea ezagutzeko aukera izango du, baita bera artatzeko erantzukizuna izango duten pertsonak ezagutzekoa ere.

2. bilera familiarekin

Bilera horrek bi helburu nagusi izango ditu:

- Tutoreak, familiak eta ikasle berriak elkar ezagutzea
- Zuzendaritza-taldeak eta ikasleak elkar ezagutzea

Komenigarria da Harrera Planaren zuzendaritzaz arduratuko diren pertsonak eta tutorea ikasle iritsi berriaren eta familiaren zain egotea ikastetxearen sarreran bilera-egunean. Ikastetxeak hartzen dituela, haien zain daudela eta ondo senti daitezela nahi dutela sentiarazteak lasaituko ditu eta prozesuaren protagonistak direla sentituko dute.

¹ Jesús Maria de la Mota Juaniz, Lehen Hezkuntzako aholkularia, Zarauzko Berritzegune
José Luis Alberdi Goenaga, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako aholkularia, Zarauzko Berritzegune.

Zuzendaritzak edo zuzendaritzako kideren batek tutorea aurkeztuko die. Komenigarria da familiari jakinaraztea tutorea haien semeari edo alabari laguntzeko dagoela, haien semea edo alaba zainduko duela eta sozializazio-prozesuan lagunduko diola. Haien semeak edo alabak edukiko duen ikasgelaren eta irakasle taldearen ordezkari gisa hitz egingo du tutoreak, eta jakinaraziko die haien zain daudela Komunitate osoaren izenean, eta beren esku dagoen guztia egingo dutela haurrak bere garapen propioa lortzeko bidean aurrera egin dezan. Seguru gaude hitz horiek lasaituko dutela familia.

Familiak tutorea aurkeztuko dio haurrari eta, ondoren, zuzendaritza-taldea aurkeztuko dio. Elkar ezagutu ondoren, haurrak, tutorearen laguntzarekin, bere oinarrizko ikasgela eta non eseriko den ezagutuko du. Jarraian, gainerako ikasgelak eta erabiliko dituen guneak ezagutuko ditu: komunak, aldagelak, plastikako ikasgela, informatika-gela, jangela, gimnasioa... Prozesu horretan, familiak eta zuzendaritzako kideek lagunduko diete.

Tutoreak beharko duten materialaren berri emango die ikasleari eta gurasoei: zer material ekarri beharko duen ikasleak eta zer material emango dion eskolak, zer beharko duen gimnasiarako, musikarako eta abar. Eta ikasturte-hasieran egindako bileran ikasgelako gurasoek jaso zuten informazioa emango die: ikasturtearen helburuak, irteera-profila, jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak, egutegia, ordutegia, hutsegiteen egiaztagiria, barne-araudia, eta abar.

Ikaslearekin egingo den hasierako prozedura erakutsiko die tutoreak:

- Hasierako behaketa eta ebaluazioa ikaslearen gaitasun-profila ezagutzeko.
- Hamabost egunen buruan, tutoreak semearengan edo alabarengan ikusitako profilaren behin-behineko emaitzen berri emango dio familiari.
- Hilabete bat igarotakoan, familiak tutorearekin egingo duen bileran,

semearengan edo alabarengan ikusitako profilaren behin betiko emaitzen berri emango diote familiari. Bilera horretan, eta ikasleak eskatzen badu, familiaren semearentzat edo alabarentzat diseinatutako plana aurkeztuko zaie.

- Lehenengo astean edo hamabostaldian familiak jakin nahi badu bere semea edo alaba nola ari den ikastetxera egokitzen (egoerak ahalbidetzen badu, informazioa agendaren bitartez ere eman ahal izango da), ikastetxera joateko edo telefonoz deitzeko aukera emango zaie.
- Bukatzeko, tutoreak familiari eta ikasleari jakinaraziko die eskolako lehenengo egunean non egingo dion harrera ikasleari.

TALDEA PRESTATZEN

Ikasle berria iritsi aurretik, ikasgelako haurrek honako hau jakin behar dute:

- Ikasgelan ikasle berri bat izango dela, taldea aldatu egingo dela eta taldea berregin egin behar dela eta ikasle berriaren izena.
- Saioaren hasieran taldea berregiteko jarduerak egingo dituztela tutorearekin astebetetz.
- Ikaslea zer taldetan egongo den.
- Taldeak ikaskide berriarekin zer egin behar duen lehenengo astean:
 - elkarrekin egitea ikasgelako sarrera-irteerak eta mugimenduak
 - ahal den neurrian, laguntzea etxetik eskolara bitarteko ibilbidean
 - irakasleak eta ikastetxea osatzen duten beste pertsona batzuk aurkeztea



Tutoreak senitartekoen eskutik hartuko du ikaslea.

- Tutorearekin igoko da ikasgelara, edota lehena jarriko da ilaran (aldeaz aurretik irakasleak jakinarazi dio taldeari hor jarriko dela).
- Tutorea ikaslearekin sartuko da ikasgelan eta ikaskideei aurkeztuko die (taldeak bazekien ikasle hori etorriko zela eta ikasle berriak bazuen taldearen berri. Ez dira arrotzak, eta lehenengo aldia da aurrez aurre daudela eta elkar ikusten dutela. Horrenbestez, protokolo bat besterik ez da).
- Taldearen aurrean, tutoreak ikaskide berriaren izena esango du eta gainerako ikaskideek agurtu egingo dute.
- Tutoreak dagokion taldera eramango du ikasle berria, taldea osatzen duten gainerako ikasleak eta laguntzaile gisa jardungo duen ikaslea aurkeztuko dizkio (ikasle hori ikasle berriaren gida izango da hamabost egunetan ikasgelan eta eskolan).
- Laguntzailearen rola berri emango dio ikasle berriari eta bakarrik utziko ditu.
- Lehenengo asteko saioetan ikasle laguntzaileak arreta berezia jarriko du iritsi berriak egiten dituen ekintzetan eta lagundu egingo dio.
- Ikasgelaren plano bat egingo da ikaskide berriarentzat: bakoitza nor den eta non esertzen den esango zaio.

Jarraian, sozializazioari begira, komenigarria da talde-kohesioa lantzeko dinamikak abian jartzea, taldea osatzen duten kideen artean jarrera positiboak sustatzeko. Besteak beste, eranskin honen amaieran aipatzen direnak izan daitezke.

TUTORETZA BEREZIA

Taldeak lehenengo taldearekin zerikusirik ez duen taldea dela emateko, dagokion itxura eman behar diogu. Horretarako, ikasgelako argazkia, zerrenda, plano eta abar berri behar dira.

IKASLE BERRIARI JARRAIPENA EGITEA

- 1. astea: ikaslearekin hitz egitea GELAN eta ESKOLAN nola sentitzen den jakiteko: Pozik? Lasai? Normaltasunez? ..., Ba al duzu harremanik beste ikasle batzuekin? Ba al duzu lagunik jolas-garaian jolasteko? Nola eta norekin etortzen zara eskolara? Nola eta norekin joaten zara etxera? ...?
- Hamabost egunen buruan: irakasleek ikasle berriaren egokitzapenari buruzko behin-behineko sentsazioak eta ikuspegia partekatuko dute. Familiarekin hitz egin dena bildu eta ordenatzea.
- Hilabete igarotakoan: ikasleak eskolan erakusten duen ikuspegia, osatuagoa, partekatzea. Familiarekin hitz egin dena bildu eta ordenatzea.

PROZESUARI JARRAIPENA EGITEKO BILERAK

- Hamabost egunen buruan: tutorearen eskutik (harrera-planaren arduraduna eta aholkularia, beharrezkoa denaren arabera). Gaiak: egindako egokitzapen-prozesua, behin-behineko profila, prozesuak nola jarraituko duen eta inplikaturik dauden guztientzako orientabideak.
- Hilabete igarotakoan: tutorearen eskutik (ikasketaburua eta aholkularia, beharrezkoa denaren arabera). Gaiak: egindako egokitzapen-prozesua, profil osatuagoa, prozesuak nola jarraituko duen eta inplikaturik dauden guztientzako orientabideak.

TALDE-KOHESIOA LANTZEKO JARDUERAK

Lehen eguna

1. jarduera

Laguntzaileak ikasgelako planoa eskainiko dio (ikasle bakoitzaren izenekin eta lekuekin). Ikaskideen aulkiaren ondoan, ikasle berria eta laguntzailea zutik daudela, taldeko gainerako ikaskideak izendatuko ditu banan-banan (hizkuntza baldin badaki irakurriz, eta, hizkuntza ez baldin badaki, lehendabizi laguntzaileak esango du eta gero ikasle berriak errepikatuko du). Gainerako ikasleek beren izena entzuten dutenean altxa egingo dira, ikasle berria agurtu egingo dute eta beren izena esango diote. Ikasle berriak erantzun egingo dio.

2. jarduera

Ikasle berria eta laguntzailea, ikasgelako planoa daramatela, taldez talde joango dira, taldeko kideengana banan-banan hurbilduz, eta taldeko kide horiek altxa egingo dira honako elkarrizketa hau egin behar dutenean:

“Kaixo, (Taldeko kidearen izena)”, esango du ikasle berriak. “Kaixo, (Ikasle berriaren izena)”, esango du taldeko kideak

Bigarren eguna

3. jarduera: ELKARRI ESKUA EMAN

Ikasle berria ikasgelaren erdian jarriko da eta gainerako ikasleak haren inguruan jarriko dira biribil bat osatuz, baina dagokien mahaitik ahalik eta hurbilen. Horrela, talde bakoitzeko kideak elkarrekin egongo dira. Ikasle berriaren

taldeko kideetatik hasita, txandaka, eskua emango diote:

“Kaixo, (Ikasle berriaren izena)”, esango dio biribileko pertsona batek. “Kaixo, (Biribileko pertsonaren izena)”, esango du ikasle berriak.

Ikasle berriak izena asmatu badu, ikasle horiek eseri egingo dira, eta asmatu ez badu, ikasle horiek zutik geratuko dira. Zutik geratu diren pertsonak beren izena gogoraraziko diote. Bigarren biran lehenengo biran asmatu ez dituen izenak asmatzen saiatuko da.

Hirugarren eguna

4. jarduera: PILOTAREN JOKOA (oso ezaguna ikaskuntza kooperatiboan)

Laugarren eguna

5. jarduera: GURPILAREN DINAMIKA

Ikasle berria ikasgelaren erdian kokatuko da eta ikaskideek biribil-erdi bat osatuko dute, baina oraingo honetan nahi duten bezala. Ikasle berriak nahi duenari botako dio mataza ikasle horren izena esaten duen bitartean. Asmatzen badu, mataza jaso duenak itzuli egingo dio. Asmatzen ez badu, bere izena esango dio eta mataza itzuliko dio. Mataza norbaiti bota aurretik, ikasle berriak hariarekin bira bat emango dio bere eskuari. Era horretan, taldearen kohesioa ikusarazi eta indartu nahi da (Guztiei lotuta nago eta guztiak niri lotuta daude).

6. jarduera: ARMIARMA-SAREA (dinamika ezaguna ikaskuntza kooperatiboan).